TTiPi-TTAPA

1989 ko Urtarrila 26. zenb.

© Pablo Salgado Garcia

BERRIAK

2.- Bera
4.- Igantzi
5.- Arantza
6.- Etxalar
8.- Lesaka
10.- Bortziriak
12.- Ituren
13.- Doneztebe
14.- Zubieta
17.- Zugarrumurdi
18.- Goizueta
20.- Leitza

ARTIKULUAK, ELKARRIZKETAK...

22.- Gazteak. langabezia, etorkizuna...
24.- Leitzako Gaztetxea.
28.- Autobia.
32.- Objetoreak. insumisoak
34.- Donato Larretxearekin solasean.
40.- Baztan Bidasoako kirol batzordea.
43.- Edari alkoholikoak sortarazten dituen arazoak.
46.- Dinosauroak eskuhar.
46.- Adizu Gizontto
50.- Lesakan Nafarroa Oinez.
52.- Autobiografiaren Poema.
53.- Eskutitza.
54.- Komikia.
56.- Honelakoak bagenekizkien.



BERA

PROIEKTU UGARI.-

Badirudi azkenean Kultur-Etxe bat eginen digutela Beran. Lanbide eskola zaharrean, hain xuxen ere. Proiektu honen aurrekontua 50 milioietara iritxi daiteke eta etxe honetan biblioteka, erakusketa gela, turismo bulegoa, museoa eta hitzaldi aretoa eginen dire.

Heziketa eta Kultur Departamenduko Kontseilariak gure herriari egindako bisitaldiaren ondoren, badirudi hurrengo urtean hasiko direla proiektu honen lanak.

Futbol zelaiko proiektua ere aintzina joko du eta aldiz polikiroldegia gibeltu eginen da.

KIROLZALEAK.-

Kirol komisioak eginaraziko ikerketa baten ondoren, gure inguruan gero eta kirol gehiago egiten dela erran daiteke. 15 urtetik beherakoen artean %8o,4 ek egiten dute kirola eta adin hortatik gorakoek %47,2. Helduen artean footing, futbito, bizikleta, pilota eta mendizaletasuna dira gehien praktikatzen diren kirolak eta gaztetxoen artean futbola, esku baloia, saski baloia, pilota eta txirrindularitza.

BIRIATUKO KROSSA.-

Bidasoa ibaiaren iparraldean kokatzen den Biriatu herrian ohizko krossa burutu zen. Bertan, 16 kilometroetan zehar, ari izan ziren berrehun atleta inguru artean Berako ordezkariek lortutako emaitzak albiste ditugu. Helduen mailan Juan Manuel Irazokik bigarren tokia lortu zuen eta Joxe Zubietak zortzigarrena. Patxi Pikabeak - 18. sailkapen orokorrean- garaipena lortu zuen gazte mailan. Bertzalde, ibilbide laburragoan haur mailan Jabier Kalboren lasterketa aipagarria da; Avelino Vazquez, bigarren izanez. Kimu mailan Iñigo Sarobek irabazi zuen. Neskak ere ez ziren gaizki ibili. 11 urteko adiña dutenen artean garaipena Olga Oliveirak lortu zuen; 13 urtetan, Itziar Mikelperizena hirugarrena izan zen eta Mirian de Blas-ek lasterketa ona egin zuen.



Berako Eztegara frontoia.

LURRAREN EGUNA.-

Iazko Lurraren Egunak arrakasta haundia lortu baldin bazuen, bigarren edizio honek lehenengoa gainditu egin du. Urriaren 23an ospatu zen besta honetan, goiz goizetik sumatzen zen jai giroa Berako karriketan zehar.

Hamar t'erdietarako hasi baldin baziren iristen gaztak leihaketarako, baita barazki eta fruituen erakusketarako ere, hamaiketan eman zitzaion ofizialki hasiera Lurraren Egunari "Lizuniagarako igoeraren" irteera eta Artisautza Erakusketaren zabaltzearekin. Nafarroa eta Gipuzkoako 41 artisauak beren eskulanak ilunabarreko zazpi t'erdiak arte erakuts zituzten. Beraien lanen eskeintza zabala zen, kaikuak, saskiak, burdin landuak, eguzki ordutegiak eta abar luze bat; guztiak salgai zirelarik, gaztain, sagardo eta ogiarekin batera. Arratsaldeko 6etan gazta leihaketaren sariketa izan zen eta amaitzeko Txanbela euskal folk taldeak ihardun zuen Altzate plazan, 7,30 etatik 9,ak arte.

GAZTA LEIHAKETA.-

Guzira 19 izan ziren Bortziriak mailan burutu zen leihaketan aurkeztutako gaztak. Epai-mahaia osatzen zutenen iritziz -Elisabeth Irazoki (Biriatu), Txomin Iantzi (Bera), Jose Maria Andueza (Bera), Jose Antonio Gartzia (Bera) Bixente Irauntzo (Donostia) eta Ramontxo Lekuona (Biriatu) - hauek eraman zituzten sariak: lehenengoa, oroitgarria eta 10.000 pzta. Lesakako Jose Antonio Muñozentzat; bigarrena, oroitgarria eta 5.000 pzta. Berako Periko Telletxearentzat.

Gazta guztiak saldu ziren, bi sarituak enkantean egin zirelarik, lehenengoa 2.600 pezetatan eta bigarrena 1.500 pezetatan.

ATENTATUA.-

Joan den Urriaren 2an Renault etxearen aurka eraso bat izan zen, nahiz eta eraso honek kalte gutti sortarazi. Hau dela eta, EAko zinegotzi baten emazteak eta aldi berean etxearen jabekide denak, mozio bat aurkeztu zuen. HBko zinegotzia den Iosu Goyak, Euskal Herria Estatuaren eskutik jasaten ari den biolentziari buruz luze mintzatu ondoren, mozioaren kentzea eskatu zuen "zeuzkan mehatxu guztiekin" eta ondoren HBko 3 zinegotziek alde egin zuten. Botazioan EAko zinegotziak alde agertu ziren, Igoa eta Etxebeste abstenitu egin ziren eta Alkateak lehendabiziko puntua onartu zuen (atentatua kondenatuz).

Bera

KULTUR ASTEA.-

Joan den urriaren 19 tik 23 arte Gure Txokoak antolaturiko kultur astearen barnean ekintza ugari izan genituen gure herrian. Margoa eta merendua haurrentzat, Iamotenean erakusketa, hitzaldia, antzerkia, bertso paper leihaketa, jaialdia, II. lurraren egu-na, kros igoera Lizuniagara eta amaitzeko berriro ere antzerkia.

"IV Bidasoa bertso paper leihaketan" irabazleak hauek izan ziren, epai-mahaiak Lontxo Aburuza eta Jexus Maria Mendizabalek osatzen zutelarik: 14 urtetarainoko mailan, 84 lanen artean, lehenengoa "kotxe zaharraren abentura", 13 urteko adiña duen "Errenga"rena; bigarrena "Mundua 13 urte dituen Estitxu Arozena Albizurena, Lesakarra.

Hurrengo mailan aurkeztutako b lanen artean, lehenengoa "Ner Bolidoa" izan zen, Oiartzungo den 14 urteko Ibon Pikabearena bigarrenak, "Behin Praskuren ostatuan" 15 urte dituen Julen Lekuona beratarrarena.

Azkenik 16 urtetik aintziner aurkeztutako bortz lanen artean irabazlea "Neskatxa gazte bat Oiartzungo Antton Kazabon-ena.



Iamotenean, Gure Txokoa elkartearen egoitza.

IGANTZI

OMUNALEN ARAZOA

agoeneko, kanta bukaezina dirudi gantziko komunalen arazoa. Baia, gauza guztiak bezala bere asiera eta bukaera izanen du onek ere, eta bukaeraren hurtasuna sumatu egiten da nonait.

akina da Igantziko Udalak diru ila ordaindu duela dagoeneko bokatu eta aholkularietan (miloi at pasatua), baina dirudien beala, nonbaitetik zuzentzen bada sunto hau laster amortizatuko itu ordainduak.

omentuan, Nafarroako Gobernuak ta abokatuek egindako informea a ia bukatuta dago eta Udalak Convenio Transccional de Comuales" delakoa onartzearen baitan ago.

Datorren udarako, dena arront argitua egonen delakoan dago jendea eta ez litzateke berri txarra izanen gainontzeko herriak prozesu bera segitu ahal izateko.

FABRIKA BERRIA

Badirudi azkenean, aspaldian hasitako proiektua gauzatu eginen dela. Igantziko Bentetan egiten hasi berri den fabrikaz ari gara. Mila oztopo eta arazo izan ditu alde guztietatik eta ez egiteko arrisku haundiak ere bai, baina egiten ari denez, emandako bueltak bal iozkoak izan direla erran behar.

Hiru leku desberdinetan egitea pentsatu izan da eta hiruretan oztopoak jarri badira ere Diputazioaren aldetik, azkenekoan aldaketa urbanistiko batzu egin ondoren onartua izan da.

"Auxiliar Metalica" delakoa da fabrika berria egiten ari dena eta lehenengo faseak 5.000m^2 inguru ditu. Momentuan Lezo eta Trintxerpen dago kokatua eta "Laminaciones de Lesaka"rentzat egiten du lana gehien bat.

Dirudienez arrazoi estetikoak jartzen zituen Diputazioak Bidasoa ondoan ez egiteko, fabrika honek ez baitu kontaminatzeko arriskurik. Jakina da bertzalde, zer proiektu turistikoak dituzten zonalde honetarako. Kezkagarriak benetan proiektu hauek, orain arte bezala errespetatzen badute behintzat gure egoera sozio-linguistikoa.

MENDI PLANTAZIOAK

Igantziko Udalak, Nafarroako Gobernuarekin batera eginen dituen plantazioetaz aparte, bertze bi egitea pentsatuta dauka eta hasiak dira dagoeneko.

Igantzi.

Guztira 6.500 planta jarriko dira era honetara banaturik: 3.000 Abeto Douglassi, 1.000 Pago eta 2.500 Haritz amerikano.

Esfortzu ekonomiko haundia suposatzen du Udalarentzat baina ziur gaude, datozen urteetan emaitzak ikusten direnean, onetsi egingo direla orain ordaindutako pezetak, paraje soil-soiletan eginen direla kontutan harturik batez ere.

ARANTZA



Arantzako herria.

EHIZA AUNITZ

Lehengo Ttipi-Ttapan azaltzen bagenuen ehiztariak itxaropentsu zeudela, itxaropen hoiek beteta gertatu direla erran beharrean gaude oraingoan; izan ere, ikaragarrizko uso pilak harrapatu bait dituzte aurtengoan. Egun batean, setto batean 80tik pasatzea lortu zuten, alajaina!.

Lehengo alean ere, hementxetik eskatzen genien ehiztariei, bertzerik ezean, guttienez egungo arauak bete ditzaten, bainan ez dirudi horrela gertatu denik, behintzat hagitz haserre azaltzen da J.Ramon.

Bai, herri guztian zabaldu ziren orri batzuk, J. Ramonek sinaturik, eta bertan ehiztariak egin dituzten sarraskiak eta gehiegikariak salatzen zituen eta baita ere, arazo honi buruz agintariek azaltzen zuten axolagabekeriaz ere kexu agertzen zen.

ARANTZAKO UDALAK "ACUERDO POR LA PAZ" DELAKOA ATZERA BOTA.

Partido politikoak sinatutako "Acuerdo por la paz" delakoari, aho bateko ezetza eman zion Arantzako Udalak; Bakea afektatuen arteko bi parteen negoziazioaz etorriko dela arrazoituz.

AEK EUSKARAZKO KLASEAK EMATEN.

Bai, jadanik bada denboralditxo bat AEK euskarazko klaseak ematen ari dela Arantzako talde bati. Momentuz, irakasle-ikasleak hagitz gustora azaltzen dira eta gogor dihardute lanean. Alfabetatze maila ari da ematen eta batez ere EGA tituloa ateratzeko idearekin. Suerte on eta ea denak gainditzen duzuen.

ETXALAR

FRONTOIA BERRITU ETA ESTALTZEKO OBRAK HASIAK

Joan den Urriko TTIPI-TTAPAn erraiten genuen bezala, azken hogei urteotan hainbatetan aipatu den frontoi estali baten premia, oraingoan, errealitate bilakatzen ari da.

Iragarria zen bezala, abenduaren erdi alderat hasi ziren frontoia estaltzeko obrak.

Proiektuak guztira, 26.000.000 pztatako. kostea izanen du, horietatik %70a Nafarroako Gobernuak ordainduko dituelarik eta falta den %30a, Etxalarko Udalak.

Eraikitze lanak, Lesakako "Sarobe anaiak" etxegileari adjudikatu zitzaion eta proiektuan iragarria denez, Maiatzerako akautua egonen da.

Bertzalde, plazaren berritzea ez da frontoiarekin batera eginen, karrika bazterrak eginen direnean baizik. Noiz izanen den hori? Subentzioa lortu bezain laster.

ESKOLA BERRIAK

Udaletik gaztigatu digutenez, Martxoan hasiko omen dira eskola berriak eraikitzeko obrak.

Jada egina den proiektuan ageri denez, bi solairu izanen ditu eraikuntza berri honek. Beheko solairuak, irakasleen gela-bulegoa, jantokia, komunak, ikasgela haundi bat, kalefakziorako gela eta jokoetarako arkupea izanen ditu, eta lehen solairuan berriz, 4 ikasgela, laboratorioa eta komunak egonen dira.

ARBOZTAKO BIDEA

Arboztako errekan goiti bide berria irekitzeko lanak, joan den abenduan hasi ziren. Garrantzi haundikotzat jotzen den bide honen helburua, eremu eta oihan haundiak hartzen dituen mendi horren probetxamendua, modu egokian lantzea litzateke.

"Mariezkurrena" da, 25.000.000 pztatako. aurrekontua duen obra honen egilea. Proiektua, Nafarroako Gobernuak subentzionaturik dago.

BASERRIETAKO BIDEAK

Aurten hasiko da, hirurteko plangintza baten barrenean, baserrietako bide guztiak zabaldu eta enbreatzeko proiektuaren lehen fasea. Lehen fase honetarako, 50.000.000 pztatako. subentzioa eman berria du Nafarroako Gobernuak.

Horrela beraz, hiru urteren buruan, Etxalarko baserrietako bide guztiak moldatuak egonen dira.

ARRAKOITZ INGURUKO INDUSTRIALDEA

Etxalarko Udalak onartu berri dituen Hirigintzarako Arau Lagungarrietan agertzen denez, Arra-



Etxalarko frontoiaren planoa.

Etxalarko eliza.

koitz inguruko lurrak (Iruñearako karretera bazterrean), industrialde berria eratzeko altxatuak daude.

Lur hauen jabea, Berako Juan Peña Jauna, proiektuaren bultzatzailea izanen da. Jabeak, Etxalarko Udalarekin egindako hitzarmenaren arabera, argi indarra eta ura eramatea, ur zikinen depuradora eta karretera nagusitik egin beharreko sarrera bideak egitea bere gain hartzen ditu, 1991erako %60a urbanizatuta egon beharko duelarik.

JUBILATUAK MUGITZEN

Hirutan hogei urte inguruko jendea behin ere baino biziago agertzen hasi zaigu. Hirutan hogei, hirutan hogeitamar eta lauetan hogeitako gizon emakumeak "gazte parrandero" bihurtzen ari zaizkigu. Serioski mintzatuz erraiten ahal dugu: jubilatuak izugarrizko sasoi ona erakusten ari dira. Abuztutik hasita, bidai pila batetan parte hartu dute. Hona hemen bidai lekuak eta berauetan joan diren Etxalartarren kopurua:

- Abuztuan: Jabier, Orreaga (Roncenvalles), Eugi.- 10 partaide.

- Abuztuan: Arantzazu eta Loiola 43 partaide.

- Irailean: Lezo, Jaizkibel, Irun 43 partaide.

- Irailean: Andaluzia (Torremolinos).- 4 partaide.

- Urrian: Errioxako Santo Domingo.- 21 partaide.

- Urrian: Tolosa (abesbatz lehiaketa).- 27 partaide.

- Azaroan: Olite eta Erribera 45 partaide.

- Azaroan: Benidor.- 2 partaide.

- Abenduan: Doneztebe (aste kulturala).- 36 partaide.

Eta azkenik, urte zaharreko besta eguna, abenduaren 29an. Elizondon meza, Mugairen eta Almandozen bazkaria eta arratsaldea Bordatxon, alajainkoa! Besta honetan 57 Etxalartar izan ziren esku hartu zutenak, autobusa betea.

Nondik nora sortu da mugimendu hori? "Arkupe" Elkartea da zuzendaria. Doneztebe inguruan jaioa, azken hilabeteetan Bortzirietara hedatu da, baita Baztanera ere. Hedaduraren lekuko, urte zaharreko besta egunean bildu zen jubilatu kopurua: 680 gizon-emakume.

Etxalarren, 39 dira dagoeneko Elkarteko sozio txartela eskuratu dutenak, baina frankoz gehiago sartu nahi dutenak eta parte hartzen hasi direnak, azken bestan ikusi denez.

Bazterrak ikusi, leku eta jende arrotzak ezagutu, adiskide berriak egin, atseginezko bilkurak burutu, otordu goxo eta dantzaldiak ere tartekatuz. Pozgarria egitan. Hainbat urtez lan eginda, etxe zokotik ateratzea pozgarria da, eta merezia noski.

Etxalarren, mugimendu eta Elkarte horren animatzaile eta arduradun, Jose Paul eta Anuntxi dira, Arantxipiko bordakoak. Gai horri buruz zerbait nahi duenak, haiñgana jo beza.

LESAKA

LESAKAKO FERIAK

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean, urtero ospatzen diren feriak ospatu ziren.

Bezperan musika izan zen Lesakako plazan, baina giroa nahiko tzepela zegoen izugarrizko euri erasoak botatzen bait zituen.

Hurrengo egunean, "feri eguna" abereen plazaratzea eta gazta lehiaketa zeuden antolatuak. Baina erran behar hagitz azienda gutxi atera zela eta nahiko erakusketa eskaxa gertatu zela.Gazta lehiaketan hiruzpalau lagunek parte hartu zutelarik.

Hala ere jende aunitz hurbildu zen Lesakara bertako giroan parte hartzeko eta hurrengo goiz aldera arte jende ugari ibili zen tabernaz taberna.

Arratsaldez pilota partiduak ere izan ziren baina horretarako jende gutti animatu zen.

Ez zegoen giroa jendea kalera ateratzeko moduan, dudarik gabe.

Egunean zehar bertako euskara batzordeak ere euskararen arazoa kaleratu zuen eta bertsolariak ere Iruñean egin behar zen manifestaziorako deialdia zabaldu zuten.

MINTEGIA

Euskal Herriko AEKk azaroaren 26, 27 eta 28an bere seigarren mintegia ospatu zuen Lizarraldeko Iratxe hotelean.

Larehun eta hogei lagunek hartu zuten parte mintegi horretan eta Bortzirietatik ere joan ziren bertaraino, aintzinera begira AEKk zer bide eraman behar duen erabakitzean parte hartzeko.

Lesakan ferietan



Jakin dugunez, bertan bi ponentzia aurkeztu ziren eta nahiz eta puntu batzuetan biak adostasun batetara iritxi bertze batzuetan bi bide nahiko ezberdinak ikusi eta defendatzen ziren.

Horrela, joan den hiru urte hauetan eramandako bidearen balantzea nahiko negatiboa egin zen, bidenabar instituzioek nolabait horretaz aprobetxatu direla onartuz (PNVren akordioa...)

AEKren alternatiba edo proiektoa dela eta, jendea ados jarri zen, herrian gehiago saiatu behar dugula eta instituzioek daramaten politika kaltegarria salatzen.

Aintzinera begira eta funtzionamenduari dagokionez bi bide hagitz kontrajarriak markatzen ziren:

- Batzuk erakundea indartsuago eta konpetenteago egiteko, funtzionamendua (ondasunak, dirua, informazioa, e.a.) zentralizatuaren aldeko agertu ziren.

- Bertzeak berriz eta haien artean Bortziriak eta Malda-Errekako AEKkoak, bide hori ukatuz, zentroen autonomiaz nolabait baliatuz, jendearen partizipazioa bultzatuz erakunde zabalago bat egitea defendatzen zuten.

- Azkenean gehiengoak lehenengo bidea onartu zuen, orain ez dakigu nola bideratuko den han izandako eztabaida. Datozen urteetan ikusiko dugu.

AZAROAREN 19an MANIFESTAZIOA

Joan den azaroaren 19an, Lesakako herrian zehar manifestazio bat izan zen "gerra zikinaren eta PSOEk Euskal Herriarenganako daraman politikaren kontra.

Bortzirietako, Malda-Errekako eta Baztango HBk deituta berrehunen bat lagun bildu ziren eta presoak, independentzia, ETAren aldeko eta gerra zikina, polizia eta PSOEren kontrako kontsignak botaz Lesakako enparantzan bukatu zen, Lesakako HBko zinegotzia den Emilio Txoperenaren hitz batzurekin.

Lesakako Plaza

Bertan, Fermin Urtizberea, Hondarrabiko zinegotziak jasan zuen bahiketa gogoratuz, jendeari erne egoteko eskatu zion eta eguneroko lanean parte hartuz egoera hau behingoz aldatzen saiatzea azpimarratu zuen.

Bukaeran, Eusko gudariak abestuz jendea sakabanatu zen. Erran behar manifestazioa hasi baino lehen poliziak herri osoa hartu zuela baina gero ez zuela parterik hartu nahiz eta jendearengan beldurra eta intimidazioa sortu.

PILOTA JAIALDIA

Bortzirietako AEKk abenduaren 17an pilota jaialdi bat ospatu zuen. Orain arte horrelako ekitaldirik egin ez bazuen ere, AEKkoek adierazi dutenez "eusk raren arazoa, ikastearen beh rra eta intzidentzia, herri sektore guztietara zabaldu b harra dago". Hau dela eta "AEK rolak" izenean honako parti hauek eskeini zizkiguten:

Eskuz binaka: Irigoien-Arran
Mujika-Taberna

Palaz (larruzko pilota)
Utge-Lizardi
Zeberio-Santx

Joko garbia (zesta)
Menfiel-Luro
Kalbe-Garmend

Ekitaldi hau antolatzerako Gobernuak AEKrekiko daraman litika salatu nahi da eta bi nabar dirua bildu AEKk egin har duen lana aintzinerat ate tzeko.

Hau dela eta AEKk esker eman nahi dizkie, alde bate pilotariei, euskararen alde AEKren alde beren burua eske tzeagatik. Eta bertzetik antolatzeko herriko zenba jendek eta kirol arduradu jarri duten prestutasunagatik

14EAN GREBA OROKORRA BORTZIRIETAN

Berako manifestazioa.

Itxuraz behintzat bai. Gero argituko dugu zergatik erraten dugun "itxuraz". Orain has gaitezen herriz herri zehazten nola igaro zen greba egun hori:

BERA:

Zalain aldeko enpresa txiki gehienak itxi zuten, Fundizionesek, barianteko obretan ere ez ziren lanean aritu, taberna gehienak itxirik egon ziren, dendak berriz 10'terdik aldera itxi zituzten, LABkoek grebari buruz orri bat banatu zuten irekita zeudenetan.

Hamabietan bilera bat egin zen Altzateko plazan, ondoren LAB sindikatuaren pankarta baten atzetik manifestazio bat egin zelarik. 100 pertsona inguru bildu ziren.

Honen ondoren, Ibardingo bentak irekita zeudela eta, jende multzo bat joan zen itxieraztera.

LESAKA.-

Herrian gehiena itxita egon zen, tabernak ere "itxuraz" bai, bakarrenbat edo bestek Laminazionesko buruzagiei eta eskirolei bazkaria eman zieten arren.

Arratsaldez asanblada bat deiturik zegoen Udaletxean eta bertara 40renbat lagun bildu ziren.

Etxalarren, Arantzan eta Igantzin ez zen aunitz nabaritu greba.

Eta Laminazioetan? "Itxuraz" langile gehienek greba egin zuten eta egia da makinak geldirik egon zirela. Baina langile aunitzek tranpa egin zuten, permisua edo oporra hartu bait zuten egun horretarako. Enpresak "Diario de Navarra"ri eman zizkion datuen arabera, % 40ak jokatu omen zuten horrela. Sosaren premia? Lanera joateko lotsa?

Dena dela, orokorki aztertzen badugu, inoiz ez bezalako erantzuna izan zuen greba deialdi honek gure eskualdean, dirudienez PSOEren politikak badu aurkakorik alde honetan ere.

EUSKARAREN AURKAKO LEGEA

"Ley del Vascuence" delakoaren aurka EKBak antolatu zuen kanpainaren barrenean Nafarroan zehar hainbat ekitaldi burutu ziren.

Bortziriak eskualdean, errate baterako, Bortzirietako Euskara Batzordeak (B.E.B.) egitarau zabal bat prestatu zuen.

Horrela, Lesakako enparantzan antzerki emanaldi bat izan zen, gero Beran laraunbata 3an jaialdi bat ospatu zuten, bidenabar udalei lege horren aurkako jarrera eskatuz eta ikastetxe eta zentru publiko guztietan legearen ondorio txarrak adieraziz. Lesakako feria egunean ere bertsolarien bidez eta propaganda ugariren bidez jendeari informazio zuzena eman zitzaion.

Azkenik konstituzio eguna zela eta, goizez herrietan mural franko egin ziren, gai hori ukituz. Berako Gure Txokoa elkartean, Eugenio Arraizaren eskutik lege honen gorabeherei buruz hitzaldi bat eman zen. Ondoren, Lesakako herrian kalejira bat egin zen, jende aunitzek parte hartu zuelarik, hauetako aunitz "peto" batzurekin enkartelatuak. Haien artean "Doña Constitucion" izeneko panpina haundi bat zebilen, eta azkenean herriko plazan su eman zitzaion.

Horrela, badirudi eskualde honetan lege honen aurka jende aunitz mugitzen dela eta udalek ere beren aportazioa egin nahi izan dutela: bortz udalek, hots, Lesaka, Bera, Igantzi, Arantza eta Etxalarkoak bando bat zabaldu bait zuten, legea gaitzetsiz eta jendea abenduaren 10ean Iruñean egin zen manifestaldira deituz. Bidenabar Nafarroako gobernuari bertze eskari bat bidali : euskararen "kontra" egin diguten "Ley del Vascuence"

ézabatzeko, garbi bait dago bi urte hauetan lehen baino oztopo gehiago jarri bertzerik egin ez duela.

Bortzirietako euskara batzordea bera ere arazo hauei aurre egiteko eta eskualdeko euskara berreskuratzeko prozesua indartzeko sortu zela eskualde horretan, eta bertan, udalen babespean, herrietako elkarte, ikastetxe eta euskararen aldeko erakunde guztiek parte hartzen dutela.

Autobusak ere antolatu zituzten Iruñeko manifestaldira joateko, eta jendearen erantzun ona izan zuen.

ITUREN

UDALETXEKO OBRAK

Irakurleok jakingo duzuenez, Iturengo Udaletxean obrak egiten ari dira. %70a egina dago, eta bakarrik %30a geratzen da egiteke. Espero da heldu den udaberrian inauguratzea.

BERRIKUNTZAK AURTIZKO OSTATUAN

Aurtizko ostatuaren berrikuntzen proiektua, Nafarroako Gobernuaren Turismo Sailak aprobatu du. Hauxe da egingo dena: beheitiko pisuan ostatua eta jantokia egonen dira, sei gela bikoitz lehenengo pisuan eta bigarren pisuan apartamentu bat; hau dena Aurtizko ostatuaren barruan.

AURTITZEN BESTAK EGIN AINTZINETIK AUZOLANAK.

Bai, Aurtizko bestak baino lehen auzolana egin zen. Auzolan honetan Aurtizko sarrera eta frontoia garbitu ziren, transformagailua txukundu egin zen ere.

APROBETXAMENDUA

Mirukabiko pinadia subastara aterako da, Hontzalekuko pinadia markatzen ari dira baita ere subastara ateratzeko, eta hartzen duenak landatzeko. Iturengo Udalaren asmoa bi leku hauek landatzea da.

PLANTAZIOAK

Ameztian, Altxunearen inguruetan lau hektarea landatzen ari dira 2.000 landarekin.

Enbaltsearen inguruetan, berrehun zuhaitz landatuko dira.

HEZKUNTZA

Eskola Kontseilua edo "Consejo Escolar" delakoaren hautaketan, Mª José Loyarte eta Kontxi Etxepeteleku atera ziren garaile. Lehenengo bileran agertu ziren gauzarik inportanteenetariko bat eskolak desinfektatu egin behar zirela zen.

AURTIZKO BESTAK

Aurtizko besta urtero bezala San Martineri eskeini zitzaion. Martxa eta jende ugari izan zen bestetan. Aurtiztarrak itxaroten ari dira orain, hurrengoak.

UDALAK MUSIKA JARRI ARKUPETAN

Zenbait igandetan, Iturengo Udalari musika jartzea bururatu zaio. Musika izan den igande eta larunbata hoietan, jende eta mugimendua ikusi da.

GERTAKIZUNAK.

27. borda erre egin zen, hau Arrutala inguruan dago. Borda honetara mendizale asko, ikastolak kolonietan, etabar etortzen dira. Mugaireko suhiltzaileak, Iturengo Alkatea eta bordan zeuden mendizaleek izan ziren itzaltzera joan zirenak. Gau horretan Udalak mendizaleei lo egiteko leku bat utzi zien.

Orain mendizaleek borda berriztatzeko asmoa dute.

DONEZTEBE

OSASUN ZENTROA

Aurtengo urtarrilean hasi dira osasun-zentroko sanitarioak euskara ikasten. Aspaldidanik ikusten zuten behar hori, hain zuzen ere, herri euskaldunak izanik eta edozein arlotan euskaraz mintzatzeko eskubidea dagoelarik zera, osasun arloak ez zuela baldintza hori betetzeko aukerarik ematen, sanitarioen gehiengoa erdalduna delakoz.

Iaz Artondo Jaunari (Osasun kontseilaria)eskatu zitzaion Osasun Zentroan ari diren guztien euskalduntzea. Interesgarria bezala ikusiarren, ez zen neurririk hartu.

Gabonak baino lehen, berriz ere Osasun Kontseiluak eta sanitarioek planteatu dute arazo hau eta Nafarroako Gobernuak duen euskara sailekoen bidez saiatu dira euskaratze prozesua aurrera eramaten.

Hortarako, plan bat egin da, hain zuzen ere, batetik, 5 urteren buruan denak euskalduntzeko eta bertzetik, Malda Errekan egin behar den osasun lana planifikatzeko, hau da, behar diren ordezkoak Nafarroako Gobernuak paratuz zentroko martxak ez dezan galerarik izan.

Plan honi oraindik erantzunik eman ez zaion arren, bertako sanitarioak klaseak hartzen hasi dira Nafarroako Gonbernuak baimena emanen duelakoan.



Donezteben Ezkurra ibaiaren bazterrak "moldatzen" ari dira aspaldian.

Doneztebeko kultur-etxea.

ZUBIETA

ZUBIETAKO BERRIAK (BERTSO LIBREETAN)

Hainbeste denbora igaro da eta, ez dakigu nola bete
Urte bat iatsun joan bait zaigu, hemen plazaratu gabe,
Egon dira, noski, berriak, berri serio itxurakoak,
alaiak, triste edo ergelak, beti eztabaigarriak...

Hasi dituzte, kaso! uraren lan finak,
deposito-txaleta, egin dute goian,
beste txalet famoso baten behekaldean...
Urak etortzen dira, etortzen direnean,
indarra izugarrirekin, tuboak leher zorian.

Kale batzu dirade, arras deslosatuak,
besteak konponduak, edo konpon bidean, ...
idorra baldin bada, hautsa sudurrean,
euria hasi denean, herria lohian,
soinua egun osoan, bidea ezin asma,
gaur hemendik, bihar handik,
deskuidun zulora ...

Zubia estutu zaigu, makinez bete da,
pistak, aldiz, bukatu, ez guztien gustora.
Hark, "Madurgak", primeran daudela omen dio,
erabili dutenek, zer esan? auskalo!
Madurgak, mendiari,
Udalak, Madurgari,
Ramalekuak, Udalari,
Non dago errua.....Begi-Pistan!

Serio izanda ere, klubaren historia,
haur-neska-mutilentzat, prestatu nahi zena.
Borondateak nahasi, egin omen dira,
eskribuk eta bilerak, beharrezko izanak,
konpondu direnean, barru arazo orain...
Batzuen ustez, behintzat, segi beti aurrera!

Bisiesto urtea dugu, ez da harritzekoa,
han-ta-hemen gauzak gaizki, suertatzen badira,
ihizturiak heurak, ere, lorpena txikia,
basurde eske urruti, eltzea huts bueltan,
mahai ingurukoak, gogoarekin ase behar.

Neguko martxa txarra, dugu aurtengoa,
mendi-mutil erdiak dira etortzekoak.
Etorri eta lehenengo, lan obligatua,
Errandonean sartu, laguna ikustera.
Mikel ez da ageri eta! Brasilera joan da!
Esaten dute, hemendik, egia izanen da,
haren ondotik planak prestatu direla,
aurtengo ihauteriak, Bahian gehienak,
edo Rio Janeiron, brasildarrak biak.

Dena den, afera hontan, badira aukerak.
Ihauteriak izan dira, orain arte behintzat,
Zubietako herria famatu dutenak,
hasi gerade baina zabaltzen bideak,
oraingo hontan lornahi, fama... eta dirua.

Buru hausten ginaudela, holako batean,
azaldu da Juanito, topatu modua,
besterik ez bada ere, hor da Bartzelona!
Pentsatu eta egin, asmatu kirola,
Zubitik errotaruntz, eraiki olinpiada,
"Ben" Bixkote dugu gaur, lehen "Txiki" zena,
Aisa puskatu bait du, hark lortu zuen marka.

Artantxoak motibo, txakurraren lana,
kronometro eta guztiz, abiatu zubira.
Bederatzi segundu eta lau dezima,
nahikoa izandu zuen noski! maldabehera.
Bigarren frogan, berriz, malda gorakoa,
Ben Jonson kaka-ume. "Bixkotek" txapela,
bederatzi segundu, ehun metro luzeetan,
Ez doping, ez ardorik, den dena garbia.
Hurrengo olinpiadan, Bartzelona erdian,
Artantxoak eta txakurra, Ranblas inguruan.
Presta zaitezte denak!
Maragali idatzi!
Brontze, zilar ta urrea dugu irabazi!

OHARRA

Bertso haiek bukatuz, zabaldu da fama
inbiria berarekin, hain du lagun ona
basurdez bete zaigu plaza eta inguruak
frantzesak hemen dira, gure mutil zaharrak,
mus eta trago dira herriko nausiak!

Urtia bukatzeko, dena zoriona
jan eta edan ugari, genuen asmo ona,
baina deabru jaunak ez bait du barkatzen
inspektorez jantzirik agertu zaigu hemen
bi ostatu itxi dira, ez gara oso kontent!

Makurrena, dena den, gertatzekoa da oraindik. Multak ailegatzekoak direlakoz eta ez txikiak gainera! Eta dirua garrantzitsua bada ere, lana suposatzen duelako, -Zubietan lanik egin gabe bizi denik ez baita ezagutzen-, herriko giroa arras ondatzen duen ekintza hori da itsusiena, salaketa, inspektorea ez baitzen paseo bat ematera etorri, bakarren batek deituta baizik, denok dakigun horrek deituta... Eskubide legalak? Guztiak! Edonork salatu dezake legea betetzen ez duena. Hasiko gara orain batak bestea salatzen?

Garbiak ote ditu etxeko barruti guztiak? Seme-alaba guztiak langile bezala deklaratuak? Pentsuen salmenta legalizatua? Transporte, taxi, eta jatetxe ezkutua? Herriz herri, bordaz borda banatzen duten guzti-guztia? Ez daiteke! Hara salaketa berrien bidea! Bidea ireki duenak ixteko gauza izanen da?

Dañatua atera den bakoitzak eginen du bere aukera. Nik, zuzenean ikutu ez didan salaketaren aurrean egin dut nerea: EZ NAIZ SARTUKO GEHIAGO!!

ZUGARRAMURDI

Aldi huntan berri murritzak ditugu herrian: ez da lurrikaririk izan, ez eta tifonak ez dire agertu, ez dakute abionik sekuestratu, ez zaigu inori loteria tokatu, ez dugu platillo bolanterik ikusi, Gorbachobek errana zuen Whashingtonerat joaten zen bide nabarkoan Zugarramurdira bueltatxo bat emanen zuela baina ezta hori ere.

Hemen barna denak berdintsu segitzen dute. Igande goiz batzutan, segitzen du Andresek gira-bira herriko karriketan barna ematen bere kotxe-bozina-bullosoarekin bazter guztiak airatzen. Noiz behinka konpintxeak ere biltzen ditu eta holaxe karabanan, bat bertzearen ondotik ibiltzen dire furrindaka. Batzuetan ere istripu ttiki batzuk egiten dituzte, lehengo aldian bezala, Jaimek, Iriarteko terraza jo zuelarik: terrazako paretari zilo bat egin zion, baina hura berak arrimatu zuen biharamunean; makurrago gelditu zen bere kotxea.

Hasi dire ere bai negu guztietako zerri hiltzeak. Lehenago etxe guztietan, hantxe beren atarian bertan hil eta erretzen zituzten; goiz aunitzetan txerrien kurrinkakin atzartzen ginen. Orain berriz, gehienak kanposantu ondoan den matataderirat erematen dituzte eta afera hunek xaltxa pixka bat galtzen du horrela.

Eta joan den urtean egin ginuen bezala, aurten ere eginen dugu biztanle-mugimenduaren estadistika, 1.988ko urtean iduri da gauzak hobekira joan direla eta horrela ikusten dugu pertsona bat bakarrik hil dela, hau Migeltxe Agerralde izan da, bainan bertze aldetik ere izan da sortze berri bat: Gorka, Toño eta Maikaren semetxoa. Eta ezkontza aldetik uste ginuen aurten ia ez zela inor ezkonduko bainan azkeneko momentuan zapla!! sorpresa: hilabete batean (denak urrian) hiru ezkontza izan digutu: lehenik urriaren 1ean, Kristina Etxaundikobordakoa ezkondu zen Arraioztar gazte batekin, Juan Marirekin. Hunen ondotik, zortzian, Koro animatu zen Bixente Beratarrarekin (bainan huneri haserre eman behar diogu desertatu delakoz Berarat bizitzera joan delarik). Eta azkenekoa, 22an, Anttonio Galtzagorri Erratzutik Beatriz ekarri zigun.





GOIZUETA



Goizueta alderako bide estuak.

XALTO"REN OMENEZ.-

Sei urte igaro dira Goizuetako skola "berriak" eraiki zirenik. Orain, esan dezakegu izena adutela: Andres Narbarte "Xalto" skola publikoa.

Azaroaren 11an Xaltoren oroieguna ospatzea, pentsatu zuten kastetxe honetako irakasleek; emengo haurrek bertsolari honen erri jakin dezaten.

Aurreko egunetan, maila guztitako ikasleek datu biografikoak, ertsoak, berari gertatutako xeebrekeriak... eta abar, biltzeri ekin zieten.

Egun honetan, goizez, haur uztiek, marrazkiak egin zituzen, egunari zegokiona azalduz; ndoren marrazki erakusketa eskoa inguruan ipiniaz.

Goi ziklokoei, bertsolaritzaz itzalditxo bat eman zien Lontxo Aburuza, Xabier Narbarte (Xaltoen iloba, bertsolaria) eta Joxe Munduatek. Hau bukatuta hamaiketakoa frontoian; nahiko jan eta edan ondoren, dantzariak eta akordeoi saioa izan ziren.

Arratsaldean, bazkal ostean, egitaraua jarraituz, goi zikloko ume batzuk, bertsoak osatu zituzten; nolabait bertso xena badagoela Goizuetan adieraziz.

Hauek bukatu zutenean, D. Bizentek egin zuen Xaltoren bizitza eta heriotzaren aipamen labur bat.

Egunari amaiera emanez: Xabier Narbarte, Joxe Munduate eta Lontxo Aburuzak, saio bikain bat eskeini zuten, gai-jartzailea, zortzigarren mailako mutiko bat izan zelarik.

Hona hemen Xaltok Iruñean 1963 urte inguruan botatako bederatzi puntutako bertsoa:

Zerbait esan nahi nuke
nere gogotikan,
gure hizkera gaxo
honengatikan,
hauxe ikasi gendun
txikiagandikan,
orduan ez genduan
bera besterikan,
ez da hizkuntzikan
honelakorikan,
hemen dagonikan
hau bezin onikan,
ez utzi galdutzera
Euskerarikan.
Ez utzi galdutzera
Euskararikan.

ESKOLA "BERRIAK" EGOERA TXARREAN.

Goizuetako eskola "berri" hauek egoera txarrean aurkitzen dira. Iaz, Nafar Gobernuko tekniko batek txosten bat egin zuen edifizioak dituen akatsak azalduz.

Txostenak dioenez, akats hauen

errua, material txarraren erabilpena omen da; batez ere, materiale karruskagarria baita ere, eraiketa diseinu desegokia. Honek uraren hodieriari afektatzen diolarik.

Berrikuntza honen kostua 13 milioi pezeta ingurua zen iaz. Aurten auskalo!

Denbora, aurrera doa eta oraindik ez dauka arazo honek konpontzeko itxura haundirik.

Hil honetan, Nafar Gobernuko Eraiketa Eskolarren arduradunak, beste txosten bat egin behar omen du;edifizioak dituen akatsak ikusi eta enpresa etxegileari erresponsabilitateak eskatzeko asmoarekin. Ez dakigu noiz emango dien irtenbide bat arazo honi, baina, bitartean haurrek eta irakasleek jasan beharko dituzte batzuren lasaikeria.

HIRUGARREN ADINEKOEN FESTA.-

Urriaren 23an hirugarren adinekoei, festa egun zoragarri bat eskeini zieten Umore-Ona elkarteko partaideek; aurreko hamar urteetan bezelaxe.

Zenbait ospakizun antolatu zizkieten gure herritar hauei, egun ahantzezina igaro zezaten.

Bezperan, mus eta truk txapelketan parte hartu zuten batzuk. Musean, Pedro Mutuberria eta Anjel Loiarte izan ziren garaile. Trukean berriz, Dolores Mitxelena eta Fermina Ondarrola.

Igandean, bazkal aurretik eta ondotik bertso saioak eskeini zituzten Arozena et Telleria bertsolariak.

Bazkaltzeko denbora guztia trikitrixa soinuak, atsegin zien bazkari bikain hura!

HOSPITALAREN BIRMOLDAKETA.-

Nafar Gobernuko Osakidetzatik, hospitala birmoldatzeko 7 milioi inguru lortuko omen dira, abendua baino lehenagotik proiektua aurkezten baldin bada.

Proiektua dena birmoldatzea da, oso egoera txarrean aurkitzen bait da etxe osoa, baina diru horrekin lehenengo etxe bizitza moldatuko litzateke; osasunari dagokiona batipat. Datozen urtetan diru laguntzak izanez gero, (espero den bezala) guztia birmoldatuko litzatekelarik.

Oraingoz asmoa, zortziren bat lagunentzat bizitza egokitzea omen da.

GOIZUETAN EZTABAIDATZEKO ZENBAIT PUNTU.-

Aldez aurretik edonolako kritikarik egiteko asmorik ez dudala adierazi nahi nuke, banaka edo herri mailan inor bere baitan senti ez dadin.

Goizuetan gehienok, ez denok zoritxarrez, euskaraz hitzegiten dugu. Esan daiteke, beraz, Eukal-Herriko euskaltzale guztiok arro gaudela hortaz eta bereziki Goizuetarrok. Ezin da antzekorik esan beste leku edo herri gehienetan. Beraien lana euskera berreskuratzea da.

Hortan dabiltza milaka Euskal

Herrian, Atturritik Ebrora.

Guk ez al dugu euskararen alde ezer egitekorik?

Hizkuntza herri baten kulturaren bidea da; eta "kultura" konzeptu barrenean dena sartzen da. Bide hori, nahiz basoko bidea, nahiz karretera, zein autopista bezala aurki dezakegularik. Gaurko gure euskara, hizkuntza kulturaren bide bezala hartuta, Goizuetako bideko birak bezalaxe dago gure artean; hauek bezain besteko gaurkotzeko beharra du.

Honekin ez dut Goizuetan euskara txarra egitern denik esan nahi, baizik eta:

- egunkaria euskaraz irakurtzeko,
- nobela bat irakurtzeko,
- Errenta deklarazioa egiteko,
- iskribu bat Administraziora bidaltzeko,
- eskutitz bat edonora bidaltzeko,
- telebistan saio interesgarr bat ongi ulertzeko eta kasuan; zergatik ez? parte hartzeko.

Erreztasunik edo gaitasuni ez daukagula esan nahi dut.

Erreztasunik edo gaitasuni ez daukagula esan nahi dut.

Honi alfabetatzea deitzen zai teknikoki eta hortan ahalegi haundiak egin behar dira, bate ere Goizuetan dauden "instituzio etatik" eta haien buru Udala iza nik. Laguntza, eskasak izan arre badira (Diputazioa).

Baztertu behar dugu gure gura soek, eta askotan guk ere, ust zutena: "euskera, zertarako? Oso maite dugu, etxean erabiltze ko bai, baina kanpoan, ikastera koan, lana bilatzerakoan... erde ra da nagusi".

Egoera jada aldatzen doa. Gau egun, askoren nahia ez iza arren, euskaldunok gero eta alo zabalagoa lortzen ari gara, gu nahi dugun euskal gizarterako

Nere ustez euskarak hemen es katzen digun betebeharra ondoren go bi atal hauetan datza:

1. Ikasteko garaia pasatu zai gunoi: alfabetatzea (euskara idatz-irakurtzen ikasiz, hizte gia zabalduz...): Udala, elkar teak, guraso elkarteak, eskola gazteak, adintsuak, ... Honeki ikasten ari direnei (gure sem alabeei, herrikideei, lagu neei...) benetako laguntza ezi hobea eskeiniko diegu.

2. Eta gure euskera hobetuz, et euskeraren bidez gure garapen lortzen saiatzen baldin bagara zuk B.U.P./B.B.B., F.P./L.H. et abar ikastera zoazen hori, zuk ZERGATIK EZ EUSKARAZ?

LEITZA

GAZTETXEARI BURUZ.--

Honez gero denok entzungo zenituzten Gaztetxea dela eta Leitzan izandako istilu eta gora beherak. Batzuk, Udaletxeko Alderdi politikoen arteko borroka eta eztabaida bat bezala azaldu nahi dute, baina gai honen arrazoiak sakonagoak dira.

ISTORIO TTIKI BAT.-

Orain dela bi urte, gazte talde batek, Leitzan gazteentzako ezer ez zegoela (tabernak bakarrik) ikusirik, lokal bat eskatu zioten Udaletxeari, biltoki bezala eta hainbat aktibitate aurrera erameteko asmoz. Erantzuna, Udaletxeak lokalik ez zeukala izan zen eta, medikua jubilatzekoa zenez, hark erabiltzen zuen etxearen zai gelditu ziren gazteek. Berriz eskatu zuten gazteek lokala, baina honetan medikuaren etxea eskatzen zutela zehaztuz. Erantzunik ez izatean, etxea okupatu egin zuten eta ondoren egindako negoziazioaren bidez akordio batera ailegatu ziren. Alkateak ez zuen onartu eta azkenean, beste bilera batzu egin ondoren, etxea uzten zaie kondizio batzu (sinbolikoak EAko kontzejal baten ustetan) sinatu ondoren.

Pasatzen dira bost hilabete eta etxea hartu zuten bezalatsu dago. Ez dute ez argirik, ez urik, ez komunik eta pestetako tabernarekin ateratako dirua txukuntze eta pintura lanetan gastatzen dute (Udaletxeak pote bat pintura besterik ez diete eman). Alkatearengana jotzen dute ura eta argia jartzeko eta obretarako behar dituzten materialak eskatuz. Hemen hasten dira istiluak. Alkateak ez ditu errezibitzen ezta gai hau batzarrean sartzen ere. Gazteek presio bideak hartzen dituzte, bi batzarretan Alkatea erretenituz. Ondoren, Alkateak etxea kentzea erabakitzen du, sinatutako kondizioak ez dituztela betetzen aitzakituz. Gai hau ikusteko pleno bat eguerdiko hamabietarako konbokatzen du, ateak itxita aurreneko egunean, eta izandako istiluen ondorioz suspenditu zenez, handik hiru egunetara berriz ateak itxita, arratsaldeko hiruretan eta oraingo honetan herriko plaza Guardia Zibilez beteta. Sei kontzejalen artean hartzen dute erabakia, zortzi egun emanez gazteei handik alde egiteko.

GERTAEREN AZTERKETA.-

Bai gazteek eta baita ere Alkateak, sinatutako kondizioak ez betetzea leporatzen dio beste aldeari. Gazteek etxea behar bezako kondiziotan eman behar zaiela egin nahi dituzten obra eta txukunketarako laguntzak eskatzen dituzte, orain dauden kondizioetan ez daitekelako ezer haundirik exigitu. Alkatea berriz, obrak permisorik gabe hasi dituztela laguntzarik emateko konpromisorik eza eta gaztetxean aktibitate kultural baino beste edozer egiten dutela aipatzen du ("manta eta koltxoneta artean edan eta erre besterik ez dute egiten" dio Alkateak Navarra Hoyen).

Leitza

Oiloa eta arraultzarena bezala gaude. Kondizio minimo batzu lortzeko laguntzarik gabe ezin deus egin, diote gazteek. Behar bezalako (?) aktibitaterik egiten ez duzuenez etxea kentzen dizuegu, dio Alkateak.

Behar bada, gazteak ez dira ez gehiegi mugitu egin nahi zituzten gauzak hasteko, bizpahiru hilabetez oso motel ibili ziren eta pestak pasa arte ez dira hasi etxean lanean. Behar bada ez dute organizatzeko modu efektiborik bilatu, herri honetan hain beharrezko diren denbora libre betetzeko ekintza eta biltoki egoki bat antolatzeko. Behar bada, martxa pixka bat falta zaie. Baina ukaezina da Udaletxetik, ez laguntza eza bakarrik baizik eta oztopoak besterik ez zaizkiela jarri.



Leitza

Nork sinistu dezake Udaletxeak herriko kolektibo bati bere etxe bat utzi eta handik sei hilabetetara argia eta urik gabe egotea? Zer gogorekin hartu behar dute gazteek han bildu eta beraien moduko ekintzak handik aurrera eramateko? Ez dugu ia inoiz jakingo zer gertatuko zen hasieratik laguntza zabal bat eman bagenio, etxe polit bat jarri zezaten eta gauza majoak antola zitzaten.

Garbiketarako tresnak ere ukatu egin zitzaizkien. Ezerrez. Argia, Udaletxeak moztu zuen kontratoa deuseztatuz eta orain kontrato berria egiteko halako kondizioak bete behar, eta jakina, obra berria etabar...

Dudarik gabe hau idea txarrarekin egina dago. Horiek ez dira laguntzeko moduak. Hortarako hobe zen etxerik ez ematea. Edo hau dena pentsatuta zegoen eta etxea eman ondoren kentzen zaie "gaiztoak" izateagatik?.

Eta gero, Alkatearen postura. Hasieran beraiekin ez hitzeginez; gero beren arazoa plenora ez eramanez, eta azkenik nola gaizki portatu diren etxea kenduz, baina Udaletxeko ateak itxita eta Guardia Zibilaren laguntzaz, noski.

ONDORIOAK.-

Baina badago beste gai bat aztertzeke dagoena oraindik. Gertakizun guzti hauen azpitik, zer dago? Istilu guzi hau kontrato bat betetze edo ez betetzetik aldatu? Nik ezetz uste dut.

Alde batetik, beraiek kontrolatzen ez duten "mobida"rik ez dute onartzen, eta Gaztetxeek ezin dituzte kontrolatu. Beren etsaiek bezala hartzen dituzte gazteen auto antolaketak beldur ematen die, eta beraien artean esnatu daitekeen mentalitate ireki eta progresistak eta Gaztetxeen beste gazteekin bildu eta beraien problemak aztertu eta irteerak bilatzeko ekintzak gauzatzea ezin dute soportatu. Hori gehiegi da! Gazteek ikasi eta txintxo ibili besterik ez dute egin behar! Mukizu hauek¡...

Hor dago koxka. Udaletxeko gehiengoak mentalitate kontserbadore eta itxia daukatela. Eta herriko beste sektoreei, gurasoei batipat beldurra sartu diete, gezurra eta irainaren bidez, betiko topikoak erabiliz: sexoa eta droga, jendeari sinistaraziz Gaztetxea inpernuko zuloaren atea dela.

Esan diren astakeriak sinistatzeak, gazteengan oso konfidantza gutxi daukagula erakusten du, eta mundua ez da gurekin bukatzen. Ondoren datozenei ere aukerak eman behar zaizkie. Konfidantzaz.

Ez dakit ia beranduegi izaneri den baina beste saioak egitea merezi luke, lasai-lasai hitzeginez eta arazo honi konponbide ausarta emanez.

Oharra.- Udaletxea EAko 4 (Alkatetza), HBko 4 eta Milagrosako 3 kontzejalek osatzen dute.

GAZTEAK, LANGABEZIA, ETORKIZUNA...

PSOEren gobernuak zabaltzen dituen estatistiken arabera, lan-enplegua gora omen doa, 300.000 lanpostutik gora sortuko omen dira aurten.

Estatistikek argitzen ez dutena, zera da: langabezian dagoen jendearen kopurua zergatik ez den jeisten. Gobernuak bere aldetik, badu honentzako ere erantzuna, bitxia gainera, lanerako gai diren langile kopurua igo egin omen da. Badaezpada ere ez du erraten, lehen langabezian zeudenak, aunitz behintzat, langabeziako zerrendetan beuren izena eman gabe zeudela, asperturik bait zeuden lanik ez aurkitzearekin.

Bertzalde, estatistikak adierazten ez dutena zera da, sortzen diren lanpostu horietatik zenbat diren iraunkorrak edo finkoak. Lantegi gehienetan noiz behinkako langileak hartzen dituzte, hori garbi ikusten da Laminazioetan, duela 4 edo 5 urtetik honat lantegian sartu direnak 3 edo 6 hilabetez aritu ondoren kanpoan gelditzen dira, finkoak bezala gelditu direnak hagitz guti dira.

Noizik behinkako lan kontratuetan 16 modalitate ezberdin badira, Gobernuak azken egun hauetan proposatu duen eta gero gehiago zabalduko dugun Gazteen Enplegurako Plana kontutan eduki gabe.

NOIZ BEHINKAKOEN LAN EGOERA

Lantegian sartu baino lehen beuren gain halako presioa dute,... "ongi ez bazara portatzen ez zaituzte gehiago deituko" eta hori, oso zabaldua dago jendearen artean.

Gero lantegian hasten dira gainontzeko presio eta diskriminazioak.

Normalean lanpostu txarrenak beurentzat izaten dira, ez bait dute protestatuko. Gehienetan oporrak bere enkargatuak agintzen dioenean hartu behar izaten dituzte. Lan finkoa dutenak txantaiatzeko erabiliak izaten direlarik zenbait kasutan.

Gaixo jartzen badira eta enpresak baja luze samarra izango duela sumatzen badu, kontratua etentzeko proposamena egiten dio, gero berriz hartuko duen promesa eginez. Laminazioetan izan dira kasuak, eskua higeltsoz estalita eduki arren, lantegira joatera behartuak izan direnak.

Bertzalde, enpresarioentzat txoilo bat bilakatu da kontratazio mota hau. Alde batetik langilearen erabateko sumisioa lortzen dute eta bertzaldetik, administraziotik diru laguntzak jasotzen dituzte. Beraz, langile hauek erdi dohainik ateratzen zaizkie.

Laminazioetan garbi ikus dezakegunez, lan finkoa dutenak noiz behinkakoez aldatzeko, enpresak, dirua barra barra ematen ari du; langileren batek lantegia uzten badu, 5 miliotik gora.

GAZTEEN ENPLEGURAKO PLANA

Lehen aipatutakolan kontratu mota horiek eskasak baldin badira, zer erran orain Gobernuak Gazteen Enplegurako Plana deitzen duen proposamen horretaz.

Jarraian zehaztuko ditut bere aspektu ezkorrenak, alde onik ez bait zaio inondik ere ageri, enpresarioak langileak dohainik lortzea edo PSOEk enpleguari buruz eginen dituen estatistikak hobetzea ez baldin bada:

* 16tik 25 urteraino denez, hortik kanpo daudenak diskriminaturik aurkituko dira eta lana bilatzeko zailago izanen dute.

* Enpresarioek behar dituzten langileak Enplegu Bulegora eskatzera beharturik ez daudenez, nork kontrolatuko du langile hoiek lehen enplegua dutela?

* Kontratua berezia denez, enpresarioek ez dute eragozpenik izanen kanpora bidaltzeko edo bertze langile batez aldatzeko.

* Lanpostu hauek administrazioaren laguntzaren araberakoak direnez, laguntza bukatzen denean bertan etenda gelduko da.

* Kontratu oso merkea da, gutxiengo soldata eskuratuko bait dute eta gainera 16 edo 17 urtekoek beuren adinagatik oraindik gutiago. Gutxiengo soldata 27.030 edo 40.040 pztatakoa. da 18 urtetik beherako edo gorakoa denaren arabera.

* Langile hauen eskubide sindikalak deusezera bihurtuak izanen dira nondik eta beuren borrokarekin eta langile finkoen elkartasunarekin ez duten indarrik egiten.

* Teorian, lanean ikasteko kontratu batzuk izatetik, explotaziorako lanpostu batzuk izatera iritsiko dira.

ERASOALDI HONEK IRTENBIDERIK BA OTE DU?

Benetan langileontzat egoera latza dela erran daiteke, batez ere lantegien barruan dagoen giroa ikusi ondoren, badirudi honek ez duela itzulpenik, gero eta okerrago gaudela.

Modu guzitan honi buelta eman behar diona, langileriak izan behar du nere ustez, historiak hori erakusten bait digu. Zapalkuntza gainditzeko, zapalduek altxa eta borrokatu behar izan dutela.

Zentzu horretan gure lantegietako arazoak konpontzeko eta egoera hobetzeko langile guziak mugitu behar dugula eta batez ere zapalduenak, horregatik ezinbestekoa da gure indarrak batzea, bai lan finkoa dugunak, bai noiz behinkako lana dutenak eta baita ere lanik ez dutenak.

Pello

LEITZAKO GAZTETXEA

Leitzan, gazteentzat ez dago ezer. Ez zegoen, hobeki esanda, ez egoteko toki bat ez inolako aktibitaterik ez eta denbora pasatzeko edozein ekintzarik. Tabernak zeuden eta hauetan ezin da dirurik gabe ibili. Leitzako gazteak (toki gehienetakoak bezala) ikasten ari gara edo langabezian gaude, eta oso gutxi dira lan bat dutenak; ondorioz oso gutxi dira dirua daukatenak. Dirurik ez dugunak ere bizitzeko eskubidea badugula iruditzen zaigunez, Udaletxera joan ginen lokal bat eskatzera, bertan, ordaindu gabe egoteko toki bat izateaz aparte, gure artean sortzen ziren ideiak eta gogoak azaldu eta aktibitate batzu (edo konziertoak, kurtsiloak edo bideo aldiak,...) egiteko.

Udaletxearen erantzuna zikina izan zen, gu nahasi nahiean hasi bait ziren, presidentea, sekretarioa, arauak eta aktibitateen lista eskatuz, lokala eman behar zigutela esan gabe. Udaletxearen borondate txarra ikusiz, denbora alferrik pasatzen ari giñela konturatu giñen eta etxe zahar bat okupatu genuen: Gaztetxea.

Udaletxea, hau ikustean, gauzak beraintzako errazago egiteko asmoz, etxea ofizialki eman zigun erdi hautsia, diru laguntza txikiena eman gabe eta baldintza askorekin. Baldintza haietako bat zera zen: urte baten buruan gaztetxeak zeramakien funtzionamendua ez bait zitzaien gustatzen, ixteko eskubidea gordetzen zuten.

Guk esan genien, argi eta garbi, baldintza horiek ez genituela onartzen eta E.A.ko zinegotziek "papeleo" hutsa zela erantzun ziguten. Gainera argia eta ura beraiek jarriko zituztela agindu ziguten,gaur, urte bat beranduago ez dute beraien hitza kunplitzeko kapazitaterik izan eta ura guk jarri dugun arren, argiarekin arazo asko dauzkagu, guk jartzen dugun bakoitzean Iberduerok Udaletxearen aginduz moztu egiten bait digu.

Oronoz jaunak, E.A.ko Alkateak, ez laguntzeaz aparte, ez digu inoiz pezeta bat ere eman, ekintza kulturalak egiteko exigitzen zigun. Eta dirurik gabe ezin daiteke ezer egin. Lagundu beharrean oztopoak jartzen zizkigutela ikusirik, eta nazka-nazka eginik, Udaletxearekin genituen harremanak moztu genituen. Aldi berean, etxea konpontzeko eta Gaztetxea martxan jartzeko, gure aldetik dirua lortzea erabaki genuen. Horretarako festetan barra bat jarri genuen eta handik ateratako diruarekin etxea konpondu eta moldatu genuen, pintatu, barra bat egin, sala haundi bat...

Baina dirua bukatu zitzaigun eta Udaletxeak agindutakoaz gogoratzen ginen: obrak egiteko materialea, ordainduko zigutela.

Beraiek aktibitate kulturalak egiteko exigitzen ziguten bezala guk agindu zitzaiguna eskatu genuen, obra egiten erabili genituen materialeak ordaintzea (40.000 pezeta inguru), hori zen gure eskaera guztia.

Oronoz jauna pertsonalki konbidatu genuen Gaztetxera, egin genituen obrak ikusteko eta honek bere hitza eman zigun arren (hitza ematea erraza da), ez zen agertu.

Udaletxeko Batzarrerako mozio bat sartu genuen, diru laguntza eskatuz baina hilabeteak pasatu ziren eta eskakizuna ez zen Batzarrera ailegatzen. Oronoz ahalguztidunak hala nahi zuelako noski. Adarra jotzen hasi zitzaizkigutela ikusirik, Batzarre batetara joan ginen, eta hitzegiten utzi ez zigutenez, "baleak" oihuka eskatzen hasi ginen. Alkateak, arazoari aurre egin beharrean, Batzarrea bukatzeko agindua eman zuen.

Gazteak orduan, Udaletxeko eskaileretan eseri ginen Alkateari jeisten ez uzteko asmoz. Honek Oronoz jauna bere onetik atera zuen (Barberia kontzejala bezala) eta bakoitzak gazte bat jo ondoren, Barberia ostikoka eta Oronoz barandila saltatuz, alde egin zuten, gazte guztiek dimisioa oihuka eskatzen genien bitartean.

Orduan bai, orduan eraman zuen gure eskaria Batzarrera ukatzeko asmoz, argi dago, beretzat arazo pertsonala bihurtu bait zen. Nola utziko zuen gazte txar batzuk bera erridikuluan jartzea?

Batzarre berri honetan, gazteak sartu ginenerako, diru laguntza ez ematea erabakia zeukaten, eta gainera Oronoz jaunak E.A.ko partaide batzuk (ezer ikustekorik ez zutenak) gure kontra berotu ondoren, plenora deitu zituen. Hauek, nolakoak geran, nolakoak izan behar dugun, beraiek gaztetan nolakoak ziren eta beraien arazo pertsonalak kontatu zizkiguten oihu eta karresika noski.

Oraingoan ere ez genion Alkateari jeisten utzi eta despatxoan gorde zen. Hemen ordu batzuk egon ondoren bere subditoek (E.A.tarrak) eskailera batekin leihotik ateratzen lagundu zioten. Aldi berean Guardia Zibila Eusko Alkartasunekoren batek deituta Udaletxean agertu zen, baina ez zen gurekin sartu.

Oronoz-i nunbait ez zitzaion leihok ateratzea gustatzen eta asko haseratu zen. Gure kontra bere metodorik oberena erabiltzen hasi zen: gezurra, ezur zikina. Gaztetxean jeringilak aurtzen direla (inoiz ez da bat bakarra te agertu), lau gazte bakarrik ginela, txea barrendik txikitu genuela (ikusi zuen arren)... betiko gezurrak.

Aparte, Euskadi Irratiatik deitu guten, Alkatearekin eztabaida batetan arte hartzeko. Guk uste genuenez, eztaidak bi aldeak eskubide berdinarekin tzegiteko eginak ziren, baina hau ez en horrela izan. Oronoz jaunak inbenzio hutsezko egundoko hitzaldia bota ndoren, gazteek bi esaldi esateko denora bakarrik izan zuten. Beti bezala, gintzen duenak agintzen du, eta egia ork esaten duen da gutxien inporta duea.

Gure aldetik Alkateak komunikabideean gure kontra botatako gezurrak garbizen saiatu ginen eta hurrengo Batzarrea joateko erabakia hartu genuen.

Azken plenoa, bere aginte diktatoriala erabiliz, ate-itxira ospatzea erabaki zuen Oronoz ahalguztidunak eta heriko hiru guardak Udaletxeko ate-itxia aintzen jarri zituen.

Gazteak, Gaztetxeari buruz erabaki ehar zutena gure aurrean egitea exigizen genuen (gu bait gara afektatuak) ta nazkaturik Udaletxeko atean zulo at eginda Batzarre Salara igo ginen. erriro Alkateak plenoa suspenditu zuen ta gainera pikoletoak deitu zituen.

Bi egun beranduago, pleno santua spatu zen, ate-itxira eta E.A.ko Alkaeak Leitzako gazteen aurka deitu zituen) pikoleto (anti-disturbio eta guzti) lazan, Udaletxea zaintzen zeuden bitarean. Hau ostiral eguerdian gertatu zen, ta ordu horretan herrian egoten diren gazteak, zenbakiz, plazan zeuden pikoletoak baino gutxiago dira.

Alkateak pikoletoei deitzea "kontraproduzentea" zela esaten zuen elkarrizketa bat gordeta geneukan eta hiru gaztek plazan itsatsi zuten elkarrizketa hau; han gelditu ziren Guardia Zibil guztiak elkarizketa irakurtzen.

Bi emakume, eskubide osoa duten bezala, Batzarrera sartzen saiatu ziren, baina Alkateak hainbeste gustatzen zaion aginte diktatoriala erabiliz kanpora bota zituen hauek ere. Plenoa ospatu zen, eta Gaztetxea ixtea erabaki zutela pentsatzen dugu (oraindik ez digute ezer esan).

Gaztetxea behar genuelako hartu genuen, eta orain orduan adineko beharra daukagu, haundiagoa ez bada.

Argi dagoenez, Gaztetxea itxita ez dute arazoa konponduko okertu baizik. Gainera hasieratik, Oronozek Gaztetxea eman bazigun E.A.tik hala agindu ziotelako izan zela badakigu.

Guk ahal dugun bezala aurrera jarraitzen saiatuko gara, Gaztetxea martxan jarriz. Alkateak, nola itxi nahiko duen ez dakigu, baina gazteak dauden bitartean, gazteen arazoa ere hor dago.

Gaztetxea gure etxea da, eta ez gaituzte gure etxetik botako.

LEITZAKO GAZTETXEA



BARTOLOREN FLAUTA

Ttipi-Ttapa Aldizkaria
Alondiga Beheko Plaza
31770 LESAKA

HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

AUTOBIA

Azpirozko mendatea.

Leitzetik berriro ere autobia gora autobia behera eta ez arazo bakarra izanagatik, gaurko honetan eta gerora begira denon bizkar gainean jaso behar dugun zama itzela delako baizik. Gaurko honetan buru hauste hau dela eta, izandako mobiden berri ematen ariko gatzaizkizue.

Jakinen duzuenez edo bestela jakinen gainean uztea da gaurko helburua, Irurtzun-Andoain autobia proiektua aurkeztu zutenetik herri ezberdinetako zenbait gabiltza hor barna ttipi-ttapa kezkaturik, 1.986eko udaberri aldera "Autobiaren aurkako Koordinakundea" osatuz.

Hasiera batetan hauzia zertan zetzan jakitea izan zen gure elkartze-lana zein nolako ondorio zekartzan tamaina hartako eraikuntzaren azterketan sakondu nahiean. Ez zen txantxetako zetorkiguna!!! Alegatzeko epe laburra egun batetik besterakoa izan zenez, gu, jo ta ke hasi ginen alegazioekin bueltaka (kotxe kopuru urria, klimaren oztopoak, ekologi mailako ondorio latzak, herrien aldaketa sozio-ekonomiko eta kulturala, etab.), urte bateko moratoria lortzekotan. Beraiek ez zutela behar adineko informazioa zabaltzen ikusiz, gure gain hartu genuen eta diapositibak, hitzaldiak, eta 20 metro karratutako maketa baten bidez abiatu ginen herriz herri proiektu maltzur eta zital hau salatuz. Guzti hau sartuko genuke Koordinakundeak 1.986 eko azarotik hasita 1.987ko maiatza bitartean antolatutako aurreneko kanpainaren baitan, AUTOBIARI EZ!! lemapean. Emaitzak, aski abudo sumatu genituen: jendearen kontzientziazioa piztuerazi, kotxe-karabanak eta manifak, tartean jaialdi eta afari bat edo beste.

Lehenengorik ez dago bigarrenik gabe,

eta a zer bigarrena ordea!! Argi zegoen urteetan zehar konpondu gabeko errepide trakets haren gaurkotu beharra, egungo beharretara egokituz. Koordinakundearen lanak aurrera zihoazten. Teknika eta lege mailan bizpahiru lagunen artean erabat zaborrak nahasten arituz, autobiak bazuela ikertzeko alternatiba posiblea aldarrikatzea, izan zen gure bigarren kanpainaren asmoa, "Autobiak badu alternatiba" lemapean.

Eta 1.988ko ekainera iritxi gera, honako honetan Donostian azken Maskarada saioa eta lau milatik gora lagun bildu zituen manifarekin bigarren kanpaina bukatutzat emateko. Bitartean Gipuzkoako Diputazioak ordurarteko kanpainaren presioak eraginda, Araxes-ko alternatiba ikertzeari ekin zion. Susmatu eta gerora denborak baieztatu duen bezala despiste maniobra besterik ez da izan honako hau hasieratik Koordinakundeak aurkeztutako erizpi-



Hau da Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko komunikabideei aurkezten diegun alternatiba: "LURRALDE" izena eman diogu, instituzioen plangintzarekin alderatuz, gure Herriko Lurralde Antolaketari lehentasuna ematen diogulako.

deak ez bait zituzten kontutan eduki, beraiena, autobia bat eraikitzea zen guztiaren gainetik. Eta, alegia, Araxes bailararen autobia bat altxatzea, ehundoko txikizioa litzateke. Alternatiba faltsu honen aitzakiaz baliatzen dira, joko maltzurrarekin jarraituz, Leitzarango proiektua aldarrikatzeko.

Garai honetarako, Nafarroako Diputazioak ez du inolako arazorik ezta buru hausterik ere, proiektu honi baietza emateko.

Autobiaren Aurkako Mugimenduaren indarrak neurtzeko garaia iritsi zitzaigun. Momentu haren larritasunak Koordinakundearen lana potenziatzea bultzatzen gintuen, ahalik eta jende, erakunde, alderdi eta herri mugimendu gehien inplikatuz, Autobia egiteak alde guztietara suposa dezakeena ohartarazi nahiean.

Makina bat hitzaldi, bideo emanaldi, prentsaurreko eta debate antolatu genituen, azken hauetara konbidaturiko zenbait erakunde azaltzeko adorerik ez dute izan, Nafarroako Diputazioa kasu. Gure aldetik, berriz, ez dugu tripa zorririk izan, beraien ihardunaldietan erantzun salatzaileak egiterakoan, enkartelaketak, pitada-bulla, etab. Beldurtzen hasiak ziren gure indarrez.

Hirugarren kanpaina honen emaitzak, gure pozarako berehalaxe ageri-agerian azaldu zitzaizkigun, zeren, Euskal Herri osoko ahoetan bait zebilen delako Autobiaren hauzia, zenbait Udaletxetako plenoetan eztabaidatuz, prentsan moeta guztietako eritziak agertuz, bai partiduenak, kolektiboenak edo partikularrak. Eztabaidaren mamia, sakoneko gaiari lotzen ari zitzaion, hau da, "Europa eta progreso"aren aitzakiarekin ezarri nahi duten Autobiaren proiektua gure onerako den ala ez, behin betiko kalte ekologikoak eta aldaketa soziokulturalak izanen direla, ekonomi mailan afektatutako herrietarako aberastasunik ez duela ekarriko. Euskal Herrirako eredu hori nahi dugun ala ez da jokoan dagoena.

Ezin aipatzeke utzi, nazionalitate eta arlo ugariren pertsonaiengana iritxi izana adhesio kanpainarekin baieztatua. Eta une honetan izan zen ere, Europako ekologi kolektiboekin iristea, gurekin bat eginik Nazioarteko ekologi mailako egun bateko topaketan parte hartuz.

Udazkeneko kanpainaren azken egun horretan, eta Nazioarteko Ekotopaketak erabat majoak izan ondoren, manifaren ordua iritxi zen. Hara non eta milaka lagun Autobiaren aurka elkartu ginela. Oilapikorrak sortarazteko moduko bukaera, benetan. Han geunden oroen baitan AUTOBIA EZ DA KONPONBIDEA lema are zihurrago finkatzen zelarik. Autobiaren arazoa kalera ateratzearen baieztapena begi bistan zegoen, jende askok hartu duelarik bere gain. Azken egun honetako arrakasta ederki aprobetxatuz, orain sekulan baino gehiago mobidan erruz aritu behar dugula garbi dago, zeren eta sortu den erantzunagatik ez balitz izan, dagoeneko monstru horren txikizioa konponezina zatekeen. Jadanik hurrengo kanpainaz pentsatzen ari gara eta ordurako bi Diputazioen jarrera argia izanen da. Pausu ederra eman dugu aurrera.

Leitzarango Maskarada

Herri guztietara jende mota orora iritxi nahi genuen eta zein modurik onena kale antzerkia baino: "LEITZARANGO MASKARADA".

Amets ero hura lau haizetara zabaldu nahiean edo, egunkarietako iragarki xinple baten bitartez, Orereta, Donostia, Andoain, Areso, Leitza eta Iruñako 35 lagun elkartu ginen. Autobia hauziaren zabalkundea genuen helburutzat; Antzerki munduan batere harremanik gabeko jendea ginela kontutan harturik, Iparraldeko Maskarada hartu genuen eredu, jende xumearengana ahalik eta hurbilen agertzeagatik, azken finean herriko jendeak parte hartu eta bertako arazoez aritzen bait dira. Honako hau baieztatzeko, bertso hauek doazkizue:

Araxesko bidea
zabaldu behar da
hiru karriletan
denok sartuko gera
kurbak irekita
seguru zabiltza
Azpirotzeko maldan
tunel berritik pasa.

Maskarada honen
zentzu bakarra da
Leitzarango Autobia
ezinezkoa dela
aurkeztera goaz
dagoen alternatiba
Autobiari emateko
ipurdian labatiba.

Diruaren kontutan,
Autobiak garestia
merkeago da askoz ere
konpondu besteak
hola biziko gara
pozik ta ez tristeak
bide onak ez bakarrik
Iruñeak eta Donostiak.

Alde guztietatik
autobia da txarra
gu kontra jartzeagatik
ez jarri zakarra
gelditu egin dezagun
proiektu maltzurra
hau dena lortzeko
dugu zure beharra.

Osasuntsu bizi zaitez
zure inguruaz ohartu zaitez
zoriontsu izan zaitez
ardura zuk hartzearen bidez.

Leitzatik.-

OBJETOREAK

INSUMISOAK

1984ko Abenduaren 28an kaleratu zen gaur egun indarrean dirauen kontzientzi eragozpenaren legea. Hau da, soldaduska egitearen aurka, arrazoi ezberdinengatik, agertzen den jendearekiko jarrera arautzen duen legea. Horren arabera, gazte horiek ordezko zerbitzu sozial delakoa (Prestacion Social Sustitutoria) bete beharko dute, 18 hilabetetik 24ra bitarteko iraupena ezartzen diolarik legeak.

Geroztik, Auzitegi Konstituzionalaren aintzinean errekurtso bat aurkeztu zen, baina ezezkoa jaso zuen 1987ko Urriaren 30ean. Errekurritutako atalak, garrantzitsuenak aipatzeagatik, hauxek ziren: ordezko zerbitzuaren iraupenari dagokiona, objetatzeko motiboari dagokiona eta objetatzeko momentuari buruzkoa.

Izan ere, soldaduskak 12 hilabete irauten duen bitartean, ordezko zerbitzuak 18-24 hilabetetako iraupena izanen omen du. Motibazioaren aldetik, etikoa, erlijiosoa, filosofikoa eta bertze zenbait onartzen dira, ez ordea politikoa eta ekonomikoa. Eta ez du onartzen legeak soldaduska garaian egindako objezioa, Auzitegi Konstituzianalaren erranetan, hitzez hitz, "betebehar konstituzionalaren dimentsio kolektiboa galerazia gerta daitekeelako norberaren eskubidea indarrean sartuz gero soldaduska bitartean"...

Ordezko zerbitzu soziala Erakunde Publikoen menpeeko elkarteetan burutuko omen da, hala nola RENFE, INSERSO, Gurutze Gorria, Caritas, e.a. Hauek hasiera batean "zerbitzari sozialak" hartzeko prest agertu ziren, baina hainbertzeko langabezia dagoen bitartean alternatiba honek ondorioak ekar ditzake eta badira dagoeneko gibelera egin dutenak. Errate baterako, RENFEko entrepresa batzordeak objetoreak bertan aritzeari uko egin dio. Gauzak horrela, oraindik ez da inon martxan jarri,

teorian joan den Irailean hasi behar bazuen ere, eta zer gertatuko den ikusteko dago.

Honen aintzinean, zein da gaur egun objetoreen egoera? Estatu osoan 27 mila inguru daude, horietatik 11 mila "Testigos de Jehova", 10 mila objetore "kolektibo", 3 mila "legal" (aipatutako legea onartzen dutenak), eta gainerakoak emakume eta soldaduska egin ondoren objetore deklaratutakoen artean. Hego Euskal Herrian, objetore kolektiboak soilik kontutan hartuz, bi mila baino gehiago daude, "declaracion colectiva" deritzona izenpetu dutenak. Deklarazio honen bidez, bai soldaduskari bai ordezko zerbitzuari ezezkoa ematen zaio, agiri bateratu batez baliatuz. Guzi hauek objetore legal gisa onartuak izan dira 1988ko Otsaila arte, baina ez ondorengoak, ondorioz milaren bat daudelarik estatu mailan objetore izaera onartu gabea dutenak.

Oraïndik ikuskizun baldin badago ere, badirudi urte hauetan aintzakotzat hartuak izan diren objetoreak amnistiatu eginen dituztela. Bertzeen etorkizuna ez dago hain argi. Izan ere,egoera honen aintzinean insumisioa planteatzen bait da, hau da, soldaduskara deituak izatean, joateari uko egitea. Hemendik aintzinera ikusiko da jarrera honi nola erantzuten dion Gobernuak. Legearen arabera soldaduska egiteari uko egiten diotenek 2 urtetik 4 urtetara bitarteko gartzela zigorra bete beharko lukete, eta zerbitzu sozialari uko egiten diotenek 2 urtetik 6ra bitartekoa. Baina zaila da era horretan erasotzea mila pertsonako kolektibo bati.

Hala ere, hiru atxiloketa kasu eman dira azken hilabete hauetan. Batek bortz hilabete gartzelan pasatu baldin baditu ere, gaur egun hiruak aske daude. Luze gabe ikusi ahal izanen da nola doazen gauzak.

P. PETRIRENA



DONATO LARRETXEA

ARANTZAN JAIO... ALMANDOZEN.. BIZITU.....

ETA BERAN BIZI DEN AIZKOLARI HAUNDIA.



Iluna eta lainoa, biak elkar hartu dutela erran liteke egunari indarra eta gauari bidea irekitzen laguntzearren. Berako Obenea baserri-etxera iritxi garenean, oraindik ilunabarraren garaia den arren, gaua ere badela dirudi lanbroak inpresio hori eragiten duelakoz. Etxe atarian, hantxe aurkitu dugu Donato, bere aitaerrua eta osabarekin hizketan, aintzindik geratu bezala gurekin solas egiteko zai dagoen bitartean bezperan izandako txapelketaren nekeak ahantzitzen ari bailitzan.

Bidezkoa den agurra eskeini ondoren, berehala eraman gaitu bizilekura. Behin han, bere emaztea den Rosa Marik eskeini digun garagardo tragoa gogoz edan ondoren, denborarik galdu gabe ekin diogu elkarrizketari.

Donato Larretxea Lizardi, Arantzan jaio zen duela 28 urte, Perikonborda deritzan baserrian, bera 6 senideren azkenaurrekoa delarik. Halere, ez zuen luzaroan iraun Arantzan, ia txutik ikusi bezain laister, bi urterekin zuzen errateko, gurasoak bizilekuz aldatzea erabaki baitzuten, Almandoz herrian, Belate mendiaren gerizpean dagoen Goldaburu baserrira joan zirelarik bizitzera.

Baserri bakarti, urrutiratu eta aldapatsu hartan igaroko da Donatoren gaztaroa. Han bizitzea berez gogorra bazen, are gogorragoa bilakatuko zen aita hil zenez geroztik Donatok erran digun bezala, aitataz juxtu oroitu bertzerik ez da egiten, 6 urte bakarrik baitzituen hura bertze mundura joan zenean.

Lehen aitak egiten zuena norbaitek egin behar zuenez, umeei tokatu zitzaien betekizun hori. Beraz, gaztetandikan ikasi zuen Donatok zer zen bizitzea. Eskolarako bidaiez aparte, ttikitatik baserriko lanetan gogor ekin izan behar baitzuen; ardi zai, behiak bazkatzen, edota baserrian inoiz akautzen ez diren lanak egiten.

Aizkora ere, ia jaio bezain pronto hartu zuen eskuetan, baserri batetan tresna hori nahitaezkoa baita edozer gauza egin ahal izateko. Halere, aizkorarako zaletasuna helduxeagoa zenean etorri zitzaion, hamabortzen bat urterekin hasi baitzen afizioz egurrak eba-

kitzen, Belate azpian dauden baso amaigabeetan ugari dauden pago arbolak sortzen duten tentazioa baztertu ezinik. Aposturako zaletasuna, berriz, jaiotzez etorriko zitzaion, hori odolean eramaten baita, euskaldunen artean hain gurea dagun lehiarako grina. Gero, sua barnean indartzen joango zitzaion, Goldaburuko belagi zabaletan bizitu bait zuen nola uda partean bere osaba Joxe eta Manuel eta Donatoren bi anai zaharrenak apostuak egiten zituzten belar-soroak nork lehen ebaki, nolabait lana aintzintzearren. Geroxeago berriz, bere anaia Patxik laisterka eginen zituen zenbait ahalegin eta Donatok dioen bezala, hantxe ibiltzen zen bera ere prestatzen laguntzen. Halere, berak aitortzen duen bezala, helduxeago egin zen arte ez zuen pentsatuko aizkolaria izan zitekenik. "Nik hemezortzi urte nizkianean, Patxi anaia ari huen prestatzen Elizondon aizkorean aritzeko eta berak min hartu egin zian behatz batetan. Orduan berak erran zidakeen - hik atera beharko duk orain - nik nola kristo atera behar diat? Bai, hik atera beharko duk erraten zidakeen eta horrelaxen atera ninduan lehen aldiz plazara, Elizondon "Santiotan" Ordurarte ez nian sekulan pentsatu ere egin plaza batetara atera nitekeenik. Egun hartan bostgarren atera ninduan. Hurrengoan berriz, Donostian aurkeztu ninduan, gazteentzako antolatu zuten txapelketa batetan. Abisatu zidatekeen ia ez nuen atera behar eta hamabosten bat egun egin nizkian prestatzen eta irabazi egin nian. Hurrengo neguan jokatu nian lehendabiziko apostua Leitzako Barberiarekin, 10 berrogeitabost ontzakotara. Haisa xamar irabazi niokeen, ia enbor bat kendu bait nion. Negu berean egin nian bigarren apustua Ugartebururekin. Hura ordurako ia aizkolari egin xamarra huen eta ni berriz hasi berria. Berak hamahiru kana-erdi ebaki behar zizkian eta nik berriz hamabi. Apustu hura galdu egin nian nahiz irabazteko abildadea izan Latasa hartu nian erakusle eta lagundu beharrean, kortea estutu egin zidakeen eta segundu bakar batzurengatik galdu nian".

Galdutako lehen apustu honetaz gogoratzean, oraindik ere amorrua nabari zaio Donatori, begietako dirdirak hori erakusten baitu. Ageri da ez zaiola atsegin orduko oroimena, berak irabazteko abildadea bazuela jakinez gero eta gainera galera, lagunduko ziola ustetan konfidantza osoa emandako gizonaren erruz izan zela kontutan hartuta. Galtzea berez tristea bada, horrela galtzea are tristeagoa baita.

Baina, galdu arren, ez zen ikaraturik geratuko Donato eta soldaduskara joan aintzinatik bertze apustu bat jokatuko zuen. "Hemeretzi urterekin jokatu nian hurrengo apustua. Errastibaso Gipuzkoarrak bota zian desafioa Euskalerrian inor bazen kintapekorik Mendizabal etorri huen jokatu behar genuela apustu hori, nik banuela irabazteko abildadea erranez. 12 hirurogei ontzakotara jokatu genian eta berak egur gogorrak eraman zizkian, pentsatuz nik ez nuela iraunen, gizen xamar bait nengoen apustua jokatu genuenean. Baina, berrogei egun banizkian prestatzeko eta aisa irabazi nian, hamabiren bat minutu atereaz. Gero handik denbora guttira ospatu huen Nafarroako txapelketa, Apirila aldera eta biharamonean soldaduskara joan ninduan. Txapelketa honetan hirugarren gelditu ninduan, Mindegia eta Mendizabalen gibeletik" .

Aunitz kirolariri gerta ohi zaien bezala, soldaduskak hautsi egiten du prestaketa eta jarraitzeko ilusioak apurtu ere bai zenbaitetan. Horrelako zerbait gertatu zitzaion Donatori, soldaduska ondotik luzaroan egon baitzen aizkoran pentsatu gabe, berriro plazara ateratzeko gogorik gabe. "Bi urte pasa nizkian soldaduska ondotik erratekotan aizkora ia ukitu gabe. Bi urte horietan Frantzian aritu ninduan lanean eta ez nian denborarik izaten aizkoran aritzeko. Orduan ez nian uste goi-mailako aizkolaria atera nintekeenik eta horregatik utzi nian bazterrera. Gaur badiat pena apur bat hori egina, ze orduan jarraitu izan banu gaur hobekiago egongo ninduan, ariz ikasten baita aizkoran. Gero, handik etorri nintzenean berriro afizioa gehitu zitzaidakeen, prestatzen piska bat hasi ninduan, exibizio batzutan parte hartu nian eta 84. urteko txapelketara aurkeztu ninduan. Urte

hartan Tolosan ospatu huen eta bigarren gelditu ninduan, Mindegiaren gibeletik. Ondoren, Olasagastik bota zidakeen desafioa hiru azioetara: 50 aldiz 125 kiloko harri kubikoa jaso, bi oinetako sei enbor ebaki eta 6 kilometro laisterka korritu. Apostu hura nahiko polita gertatu huan eta irabazi egin nian. 85.urtekoa, Basaurin ospatu huen eta bigarren gelditu ninduan. Urte horretan, azkeneraino aintzinean ibili ninduan, irabazi behar nian orduan, baino aizkora ukertu, kiderra hautsi eta kristo guziak gertatu zizkidakeen eta azkenean Mindegiak eraman zian zapela".

85. urteko txapelketa gogoratzean, oraindik ere nabaritzen zaio tristura Donatori. Berak ezezik guziok ere gogoan dugu egun hartan gertatutakoa. Inork uste ez zuen lana burutu zuen eta orduantxe kontsagratu zen eta kritikak onartu zuen aizkolari haundi bat bezala.

"Hurrengo urteko txapelketan, 86 garrenekoa, Gazteizen ospatu huen eta gaizki bukatu nian. Apustu aintzinatik ere ibili ninduan, kristoren gripea pasatu nian eta zerbait iduritzen zitzaidakeen ez joatea eta aurkeztu ninduan baina alferrik. Laugarren amaitu nian Mindegia, Mendizabal eta Arrospideren gibeletik. Ondoren desafioa bota niokeen Mindegiari, Txapelketan ez bait nintzen batere gustora ibili. Hamabi bi oinekora jokatu genian eta irabazi egin zidan berak".

Argi nabari da Donatori ez zaiola atsegin apusturik galtzea. Zer sentitzen den apustu bat galdutakoan galdegin diogunean, eskuak agudoago mugitzen dituela somatu diogu, nonbait ez bait zaio gustatzen beregan konfidantza jarri duten pertsonak defraudatzea. "Galdu ezkero tristura eta mina. Morala aldetik lurjota gelditzen haiz eta bertzetik sakela ere hutsik. Dena uzteko gogoa ematen dik. Badakik, lagunak hiregan konfidantza jartzen ditek, dirua ere jokatzen ditek eta nolabait ardura hiregan bezala hartzen duk".

Momentu txarrak ahaztu eta aurrera begiratu beharra gertatzen da kiroletan ezezik bizitzan ere. Hori egin zuen Donatok ere. "87. urteko txapelketa Donostian ospatu huen eta hirugarren atera ninduan Mindegia eta Olasagastiren atzetik. Eta, aurten, 88. urteko txapelketan, Bilbon jokatu dugunean berriro hirugarren geratu nauk, berriz ere Mindegia eta Olasagastiren gibeletik".

Prestaketaz ere solasegin dugu Donatorekin, eta hona zer erantzun digun berak eramaten duen preparazioaz galdetu diogunean: "Ni urtean zehar ez nauk serioski prestatzen. Mendian lanean ari behar izaten diat Pirineo aldean eta ezin nauk behar bezala prestatu. Han bertzeak bezala egin behar izaten diat lana, astelehenetik larunbata arte. Gero, uda partean, exibizioak ditudanean etortzen nauk etxe aldera. Prestatu, erratekotan, pare bat hilabetez egiten nauk soilik, txapelketa aintzinean. Prestaketan gauza bat baino gehiago sartzen dituk. Egun batean mendian buelta egiten baduk hurrengoan aizkoran aritzen haiz edota serie batzu egiten dituk korrika. Normalean bizpahiru saio egiten dizkiat aizkoran, prestaketa fisikoa eta aizkora, biek lantzen dituk batera".

Korteaz, egurra zuzen ebakitzeko abildadeaz ere hitzegin dugu. Galdetu diogu ia nor izan den bere maisua, norekin eta nola ikasi duen aizkorean. "Nik, erakusle bezala bi bakarrik izan dizkiat. Haseran, lehendabiziko erakuslea Marinelarena izan huen baina saio gutti egin nizkian. Gehiena, Mendizabalekin ikasi diat, berarekin egon bait nintzen Errastibaso eta Olasagastirekin egin nituen apustuetarako prestatzen. Gainerakoan nerekasa ibili nauk naiz eta lagundu didaten anaia eta lagunak. Erakusle ona izateko ez dik derrigorrez aizkolari ona izan beharrik. Badituk ongi erakusten dutenak aizkolariak izan gabekoak baina aizkora munduan oso sartuak egondutakoak. Kortea ongi eramaten ikasteko, berriz, egurra aunitz ebakitzeaz gainera, norbait behar duk gainean zer oker egiten ditukeen erranen dikeen bat, bertzela ez bait dituk sekulan akatsak zuzenduko".

Bati baino gehiagori entzundako kontua planteiatu diogu ondoren Donato-



ri, hots: Larretxeak txapela eskuratzen ez badu, prestaketa egokirik eramaten ez duelako dela. Hona bere erantzuna: "Bai, nik bazekiat urte oso bat prestatzen arituko banintz hobetuko nintzakela, baina hori egiteko lana utzi beharko nikek eta aizkorak ez dik horretarako adina dirurik ematen. Kontatzen hasten bahaiz, diru aunitz joaten zaik alde guzietatik. Aizkorak Australiatik ekarri behar dituk, 7 edo 8 mila duro joaten zaizkik, gainera, horiek arotz batek prestatu behar dizkik. Ondoren egurrak behar dituk prestatzeko. Nik aurtengo txapelketarako prestatzeko kamioi bat egur behar izan diat eta 50 mila duro kosta zaidak. Horretan gainera kontutan hartzen baduk janaria zaindu behar dukela, ikusi ezak gastuak noraino doazen. Orain nabilen bezala,



Aragon aldeko mendietan lan eginez, ezin nauk ongi prestatu. Agian hemen, lantegi batetan edo lana lortuko banu, gauzak aldatuko hituzke".

Aizkolaritzan, bertze herri kirol gehientsutan bezalatsu, gazte berri gutti ikusten dela komentatu diogu Donatori. Ia jende berririk ateratzeko posibilitaterik ikusten duen galdegin diogunean, hona zer erantzun digun: "Gazte gutti zegok aizkolaritzan eta etortzeko posibilitate gehiegirik ez. Lehen aipatu dugun bezala, diru aunitz behar duk prestaketarako eta gazteak ez zaukatek. Bertze herrialdeetan, Bizkaian batez ere, laguntzen ziotek gazteari baina hemen Nafarroako Gobernuak ez dik batere laguntzen. Aizkolari baten semeren bat, agian Mindegiarena edo atera zitekek, baina bertzela zaila ikusten diat. Bizkaian aizkolariak ezin zainduz ari dituk, beharbada goi-mailakorik ez dutelako izanen duk eta hemen berriz guri ez zigutek inolako laguntzarik ematen. Beharbada, denbora pasa eta gero ohartuko dituk, beranduegi denean."

Guziok burutan dabilkigun galdera zuzendu diogu ondoren Donatori. Noiz kendu behar diozue Mindegiari zapela? "Ez guk nahi bezain agudo. Horrek bazeukak oraindik kuerda. Oraindik azkar zegok eta eta horrek guri kortean eta experientzian kentzen ziguk aldea. Ez dik kolpe bakar bat bera ere huts egiten eta aizkora zorrozten, prestatzen ere bazegok sekretoa. Aizkorak, denak berdintsuak erabiltzen dizkiagu baina jakin behar dik zein noiz erabili, etab. Urte aunitzetako experientzia zeukak bere gainean eta hori ez duk egun batetik bestera ikasi daitekeen gauza".

Elkarrizketa amaitzeko, ahotik hortzera bota diogu bertze galdera. Arantzan jaio, Almandotzen bizitu eta Beran bizi haiz, baina, nongoa sentitzen haiz? "Niri galdetu didaten guzietan, beti gauza bera erran diat; Arantzatarra naizela. Igual hango odola dudalako edo izanen duk, ez zekiat, baino ni beti hangoa sentitu nauk".

Mindegiaren erregetza lehentxeago edo geroxeago amaituko dela ukaezina

denez, -beti txapeldun iraun duenik ez baita jaio oraindik bederen- egun hori iristen denean, txapela Donato Larretxearen burura pasa dadila litzateke gure nahia. Honela, Nafarroan azken urteotan Latasa, Astibia eta Mindegiak batez ere ezarri duten nagusitasuna mantenduko bait litzateke. Destino hori opa diogu Donatori eta horrela gertatzen ez bada, suerte ona eta bizi luzea bederen izan dezala aizkolaritza munduan.

ASSURA

BAZTAN BIDASOAKO KIROL BATZORDEA

Artikulo honen zergatia batipat kirol alorrean dagoen egitura azaltzea izanen litzateke, baina baita ere helburuak eta antolaketaren bideak argitu, jendeak garbi jakin dezan nolako planifikazioa dagoen alor honetan.

Hasteko, Baztan-Bidasoa eskualdea nola osatua dagoen argitzen arituko naiz. Nafarroa, kirol alorrean geografikoki, eskualdeka zatituta dago, gure lurraldeari dagokiona Baztan-Bidasoa deritzon eskualdea da. Eskualde hau lau zonaldetan banatzen da, hau da, Baztan (Zugarramurdi eta Urdazubi barnean daudelarik), Malaerreka (Bertizarana barne), Leizaran eta Bortziriak; zonalde hauen elkarketak osatuko luke erran dugun bezala gure eskualdeak (begira ondoko mapa).

IHARDUERA HAU ONDOKO IZAKUNDEEK ERAGITEN DUTE



LEITZARAN
- Arano
- Areso
- Ezkurra
- Goizueta
- Leitza

MALDA ERREKA
- Doneztebe/Santesteban
- Elgorriaga
- Sumbila
- Bertiz - Arana
- Donamaria
- Oitz
- Ituren
- Zubieta
- Erasun
- Saldías
- Beinza - Labaien
- Urrotz

BORTZIRIAK
- Bera
- Arantza / Aranaz
- Etxalar
- Igantzi / Yanci
- Lesaka

BAZTAN
- Baztan
- Urdazubi
- Zugarramurdi

Kirol pertsonalari dagokionez, zonalde bakoitzak Udal kirol koordinatzaile bat dauka zonaldeko eta herri bakoitzeko kirol koordinaketa lanetan aritzen dena. Horrela, Mikel Ibarrola da Malaerrekakoa, Iñaki Perurena (ez da harri jasotzailea) Leitzarangoa, Tati Urrutia Baztangoa eta Mattari Altzuarte Bortzirietako kirol koordinatzaileek osatzen dute lan taldea (hauek Herriko Etxeen bidez kontratatuak daude). Kirol alorra eskualdeka antolaturik egotean, badago eskualdeko kirol koordinatzailea (Iñigo Doria) Diputazioak kontratataturik eta nolabait, zonaldeko koordinatzaileen koordinatzaile gisa lan egiten duela adierazteko.

Nahiz eta zail xamarra izan ondoko organigrama hau azaltzea, saiatuko naiz ahalik eta hobekien argitzen, zeren eta bera bait dugu eskualdeko kirol egituraren ardatza gisa erabiliko duguna gure planifikazioa egiteko.

Eskualdeko koordinatzailea eta Batzorde erabakikorra (Herrietako kirol zinegotzien arduradunak) izanen lirateke zuzendari bezala lan eginen luketenak beren zereginarekin, hau da, presupuestoa, plangintza, ikerketak etabar egitea.

Zonaldeko koordinatzaileak beraiei dagozkien herri eta zonaldeko plangintza egitetik gain, eskualdeko plangintza eta koordinaketa lanetan ere sartuak daude.





Plangintza hau aintzinat eramateko azpiegitura sakona lortzea eskatzen du, horrela lau departamentu edo sail egiten dira bakoitzaren arduradunak zonaldeko koordinatzaileak direlarik.

Orain pausoz pauso azalduko dugu organigrama hau: komite lokala herri bakoitzeko kirol entitate guztien biltzarra izanen litzateke (klub-ak, eskolak, etab.), beraien eginbeharra herri hortako kirol plangintza antolatzea koordinatzailearekin batera izanen litzateke. Horrela, herri bakoitzeko komite lokalak aukeratzen du zonaldeko komitean egonen den ordezkaria, zeintzuk zonaldeko plangintza egitea izanen bait dute beren eginbeharra.

Komite honetatik aukeratzen dira eskualdeko Haur Komite Teknikoa eta Gazte Komite Teknikoan zonalde bezala ordezkatuko dutenak eta Departamentu horretako arduradunarekin batera eskualde osoko plangintza eginen dutenak, "programa berezien" zergatia kirol espezialitate bakoitza bultzatzeko gauzak asmatzea eta antolatzea izanen litzateke, horretarako Nafarroako Federazioekin, eskualdeko klub-eekin eta kirola bultzatzeko nahia duten jendeekin lan egiten da alor horretan urteko planifikazioa eginez.

Aurtengo aurrerapausu haundi bat diru laguntzen banaketa egiteko denen artean onartutako baremo bat aplikatzean datza, hau da, Herriko Etxeak bai espartzimendu nola errendimendu kirolendako ematen duen diru laguntza, eskatzaile guztien artean ahalik eta objetiboen banatzeko baremo baten bidez egitea izanen litzateke. Horrela edozein kolektibo, partikular etabarrek kirol aktibitateren bat antolatzeko prest balego laguntza honetatik zerbait jasotzeko posibilitatea dauka. Baztan-Bidasoako kirol batzordeak 1.989. urteko planifikazioa Ilbeltzaren 15erako burutua izatea pentsatzen du, ondoko hamabortzaldian kirol aldizkari bat argitaratzeko asmoa duelarik zeinetan agertuko bait dira 1.989.urteko kirol programa guztiak eta kirol antolaketaren zehaztasun guztia.

Horrela bada Ttipi-Ttapako irakurle guztiei konbidapen berezi bat egiten diet Baztan-Bidasoako kirol mundua hurbilagotik ezagutu nahi badute aldizkari hau har dezatela ez baitu sosik ere balioko, nahikoa da irakurtzeko gogoa izatea.

Mattari.
(Bortzirietako Kirol koord.)

EDARI ALKOHOLIKOAK SORTARAZTEN DITUEN ARAZOAK

Artikulu honen izenburuak, gogoeta ezberdinak sortaraziko dizkigu, irakurle. Artikulu honen arrazoiaz pentsatuko duzue. Batzuek paperak errez betetzen duten gai erraz horietako bat aukeratu dugula pentsatuko duzue. Beste batzuek, betiko topikoaz arituko garela, norbaitek pelmada emateko gogo haundia dugula pentsatuko du, eta beste harek ez du artikulua irakurriko, gogoeta moralista baten aurrean dagoelakoan.

Guk esan nahi dugu, eta zehazki adierazi ere; gai honi buruz idaztera eraman gaituen bi helburu nagusiak:

a - Edari alkoholikoari buruz informazio zehatz eta desberdin bat zuzendu.

b - Gure eskualdeko pertsonengan, eta erakundeengan, kritika gaitasuna bultzatzeko. Gehienok, alkohola zer den badakigu, baina sekula ez dugu gure barrura begiratzen, ez dugu analizatzen alkohola erabiltzen dugun modua, zertarako erabiltzen dugun, eta guk hori nahi dugu, irakurleak jakitea nola, non, noiz, zergatik, zertarako edaten duen. Eta irakurleak edo irakurle bakar bat, bere egoeraz eta bere inguruko egoeraz jabetuko balitz, artikulo honen helburua lortua izango litzateke.

Gaiaren haria hartzeko, "alkoholzaletasunari" buruzko analisi bat egin baino lehen, termino horretaz mintzatuko gara. Gai honen eboluzio historikoaren ondorioz ailegatu gara izen honetara, lehen alkoholiko edo mozkor terminoak erabiltzen ziren. Gaur egun eta lehen aipatutako eboluzio historikoaren ondorioz, alkohola droga bat gehiago dela onartzea iritsi gara. Askorentzat zaila da hau onartzea eta aunitzetan graduazio guttiko edariei (ardoa, sagardoa, garagardoa) duen garrantzia kentzen diete eta argi dago, hauek badutela eragin nabarmena arazo honetan.

Erreflexio hauek egiterakoan badago beste puntu garrantsitsu bat, hau da: alkohola edaten duten pertsonak, modu edo era desberdin hauetako batean egiten dute, eta sarritan pasatzen dira era batetik bestera:

a - Gehienak, giza-ohituretan integratutako alkoholaren erabilpen bat egiten dute. Hau da "giza-edale" definituko genituzke. Pertsona hauek ez dute asko edaten, giza egoeretan edaten dute; hau da: jaietan, ospakizunetan, jan ordutan .... lagunartean .... Askok edateko modu hau ona dela diote, onuragarria dela pertsonentzat; apetitoa sortzen duelako, iragarkitan adierazten den bezala, giza arrakasta lortzeko modu egokia delako eta abar... Baina erabilpen normalizatua izan arren, baditu bere eragin kaltegarriak, eta hauek kontuan hartu behar dira.

Aitonak esaten duena, telebistan saldu nahi duena, auzoko Josek esaten duena, kontu haundiz hartu behar da, gogoan izan noizbehinkako mozkorraldiak, auto-istripuak, lan-istrupuak. Beraz ezin dugu geure burua justifikatu giza edaleak garela esanez, pauso bat gehiago eman behar da, jakin behar da zenbat edaten den, egokia den edaten dena, eta zer egin behar den kopurua murrizteko. Eta hau oso garrantzitsua da kopurua murriztea.



b - Badaude beste pertsona batzuek, gehiegizko erabilpena egiten dutenak. Hau da, era askotan, momentu askotan eta kopurua haundia. Hau da gehiegi edaten dutenak "abusatzen" dutenak. Pertsona hauek arazo inportanteak izaten dituzte osasun mailan, hau da: arazo sikologiko, fisiologiko eta giza arazoak izaten direlarik. Pertsonaren ohizko jokaeran eragin garrantzitsua izango du alkoholak. Beraz pertsona hauentzat alkohola kaltegarria denez edo izaten hasi delako, erabat uzteko beharrean aurkituko dira. Hau izan daiteke une garrantzitsu eta egokia alkohola uzteko, zeren oraindikan pertsona ez da erabat izorratu.

d - Lehen aipatutako egoeran alkohola uzten ez bada, edateko zaletasuna iristen da.

Esan daiteke une horretan , pertsona orohar alkoholizatua dagoela. Egoera, gero eta gehiago larritzen da, erremedioa jartzen ez bazaio, eta egoera honetan, alkohola erabat utzi behar da.

Orain arte aipatu duguna, edateko modu ezberdinak izan dira, baina beste arazo bat agertzen zaigu. Pertsonak, zergatik edaten du, alkoholaren ondorioa jakinda? Galdera honi erantzuteko faktore ezberdin batzuek aipatu behar dira:

a - Faktore ekonomiko-sozial-kulturala.

b - Faktore psikologikoak.

d - Faktore familiarrak.

e - Faktore pertsonalak.

Faktore hauek zehazteko, edozein pertsonaren erantzunak erabiliko ditugu:

Edaten dugu:

- lasaietzen gaituelako
- animatzen gaituelako
- ongi sentitzen garelako
- lagunek eta ahaideek behartzen gaituelako
- egoera batzuetan, edukazio txarrekoa delako, ezetz esatea
- zaporea gustatzen zaigulako
- lagunek edaten dutelako
- denbora pasatzeko
- zerbait ospatzeko
- arazoak ahazteko
- geure buruari konfidantza emateko
- haserretzen garenean
- jendeartean gustura egoten laguntzen duelako.

Eta bukatzeko garrantzitsua izango litzateke galdera batzuk egitea geure buruari. Ba al dakit egunero edaten dudan alkohola? astez edaten dudana, asteburuetan edaten dudana asko al da? ala gutxi? Ezagutzen ditut edatera naramaten nire arrazoi pertsonalak?

Onartzen dut alkohola gehiegi edaten ari naizela? ezeztatzen al dut? ez noa medikuarengana, bestela kendu egingo dit? ez dut jakin nahi?

Agian norbaitek komentario bat egin dit, eta era txarrez erantzun diot, ez zait batere gustatu esan didana. Agian familian zerbait aipatu dizue, eta ez duzu kasorik egin. Hau izaten da ohizko jokaera. Agian goizetan sintoma berri ezagun batzuek nabaritzen dituzu: ahoko dardara, mihiko dardara, goragalea, eskuko dardara, izerdia. Agian arratsetan lo egiteko arazoak dituzu.

Horrelako zerbait nabarituko bazenu zure buruan, onartu beharko zenuke alkoholakin arazo bat duzula eta lehen bait lehen, erremedio bat jartzea dela egokiena. Eta horretarako baduzu zure herrian laguntuko dizun pertsona egokia, hau da , zure medikua, eta honek explikatuko dizu egin behar duzuna, arazo hau gainditzeko.

OSASUN MENTALEKO TALDEA

DINOSAUROAK, ESKUHAR

Zenbat historia hainbat galdera, Bertolt Brecht-ek bere poeman, "Irakurtzen duen langile baten galderak", Mikel Laboak musikatutako kantu ederra ere den horretan. Zenbat historia, zenbat galdera! Zergatik dinosauroek lortu zituzten hain dimentsio eskergak? Nola lortu zuten hainbeste espezie izatea? Zergatik hain zabalduak izan ziren, lurra, airea eta itsasoak menperatuz? Noiz esistitu ziren? Nola ziren beren iharduerak eta jokabideak? Zergatik desagertu al ziren? Dinosauro bat ote da Eskoziako Ness lakuan bizi omen den animalia misteriotsua?

Alfonso Martinez de Lizarduikoaren dibulgazio liburu honek galderak ere planteiatzen ditu erantzunak adina. Dinosauroen aztarnak aurkitzeko historia honetan jakin badakigu harginak izan zirela lehenbiziko arrastoa aurkitu zutenak. Nobela bat bezala irakurtzen den liburu hau halaxe hasten da: "Maastrich-en (Holandan) kareharrizko harrobiko langileek lan astuna egin dute egunean zehar. Ezin gogorragoak dituzte lan egiteko baldintzak. Iluntasunean, argirik gabe, lurrari erraietatik harri puska handiak atera behar dizkiote, bitartean espero gabeko harkaitzen amiltzeak gertatzen direlarik. Lan gogorra, jasaten dutena, irabazi behar duten soldata eskaserako. Baina egun hartan inork espero ez zukeen gertakari garrantzitsua suertatu behar zitzaien..."

1970. urtea zen, hain zuzen, fosil erraldoi bat garai hartan bizirik zegoen inongo espezie animaliarekin antzik ez zuena Holandako kare harrobi hartan harginek aurkitu zutela. Baina Couvier paleontologoaren hipotesiak agertu arte, hogeitabost urte beranduago, ez zen izan barail itzel haren zentzua argitzen hasi. Bide horren ibilbidea da liburu entretenigarri honen edukia, ongi dokumentaturik, ongi azaldurik, hipotesiak hipotesi eta frogak froga bezala aipatuz.

Dena dela erran behar da animalia hauen kontuak nagusiki enigma bat izaten jarraitzen duela. Adibidez, nola lortu zuten batzuk zeruaren konkista. Pteranodonak zortzi metro luzerako munstro hegalariak izan ziren hain zuzen ere. Pelikanoen antzeko barail haundia zeukaten dinosauro hauek eta gorputzarekin konparatuz hauen burua itzela zen, buru gainean gandor harrigarria edukiz. Elikatzeko arrainak harrapatzen zituztela dirudi, baina misterio bat da nola arrainak harrapatuz gero, beren tamaina hain izugarria zela eta, hartuko zuten berriz airea gorputza altxatzekotan.

Eta horrela segitzen du liburuak enigmaz enigma zenbait gauza argitzen: nola dinosauroek ugaztunak menperatu zituzten, nola izan zen animalia hauen itsasoetarako itzulera, dinosauroak odol beroko



animaliak zirelako hipotesia, beren iharduera soziala, beren garunaren misterioa, etab..

Dinosauroek utzi zituzten aztarnen artean badira arraultze-oskolak, gorotzak, azalak edo hezurrak fosilizaturik. Baina gero eta garrantzi haundiagoa hartzen omen dute animalia hauen oinatz fosilek ere, izaki bizi batena bait dira. Euskal Herrian, Erribera eta batez ere Errioxa aldean, eskuhar ditugun oinatz hauek Iguanodonarenak dira hain zuzen: zazpi metrotako luzera eta 3.000 kilo pisuko belarjaleak (txikiagoak badira ere); baina, autoreak dioenez, eskeletoren bat aurkitu behar da geratzen diren zalantzak baztertzerakotan. Haragijaleak ere, askoz, urriago baina, aurkitu dira Errioxako aztarnategi hauetan.

Liburuan berritzat ematen denez, heldu den urterako Errioxan Dinosauroez Nazioarteko Sinposium bat antolatzen ari dira, bertan mundu osoko ikertzailerik ospetsuenak bil daitezen eta, horrela "gure arbaso zaharrei" buruz gero eta datu gehiago eduki ditzagun, Europako ikniten (oinatz fosilen) aztarnategirik garrantzitsuenak bait dira Errioxakoak.

JOAKIN BALENTZIA

"Euskal Dinosauroak", Alfonso Martine

Lizarduikoa. Ed. Txalaparta.

Adizu, gizontto

Badakizu, Gizontto, nola sentituko litzatekeen arrano bat oilo-arraultzeak berotzen ariko balitz? Hasiera batean uste izanen luke arranokumeak berotzen ari dela, haundi egin daitezen haziko dituen arranokumeak. Baina arraultzeetatik ez da inoiz txitoak bertzerik ateratzen. Arranoak, hala ere, adoretsu dirau, guziaren buruan arrano bihurtuko diren itxaropenez. Baina ez, azkenean ez dira oilo karakariak baizik. Arranoak, honetaz jabetzen denean, aldarte txarra jasan behar du txito guziak eta oilo karakariak bertantxe irensteko gogoari eutsiz. Hori egiteko gogoa burutik aienatzen diona itxaropen izpi bat da. Hain zuzen ere, oilanda eta oilasko karakari aunitzen artean, egunen batean bera bezalako arrano haundi bihur litekeen arranokumeren bat izateko itxaropena, berea bezalako gaitasunez hornitua mendi-gailur handiosotik izugarrizko distantziatara begiratzeko, mundu, pentsakera eta bizimodu berriak hautesteko. Itxaropen izpi honetxek bakarrik kentzen dio burutik arrano triste eta bakartiari txito eta oilo karakari guziak jateko gogoa.



Arranoaren txitoak



Noiz behinka, lohipetik ateratzen duzu burua Heil! oihukatzeko

Haiek ez dute ulertzen arrano batek inkubatuak izan direla. Ez dira ohartzen harkaitz haundi batean bizi zirela, ibar heze eta lanbrotsuak baino aunitz altuago. Ez dute urrutira ikusten arrano bakartiak bezala. Ez dute irentsi bertzerik egiten, arranoak kabiara ekartzen dien zernahi irentsi ere. Bere hegal sendoen azpian berotzen dira euria edo ekaitza denean, berak inolako babesik gabe erasoa jasaten duen bitartean. Edota, gauzak okertzen direnean, harri-koxkor zorrotzak botatzen dizkiote, toki ziurretik, jo eta min egitearren. Gaiztakeriaz ohartzen denean, lehenbiziko oldarrak denak txiki txiki egitera bultzatzen du. Baina bere onera etorri eta errukitu egiten da. Ez du etsitzen, ez du galtzen itxaropena, txito karakari, tripazai eta begilabur haien artean bera bezalakoa izatera iristeko gai izanen den arranokume bat ateratzeko itxaropena.

Eta arrano bakartiak, gaurdaino, ez du etsi. Eta txitoak berotzen ditu oraindik.

Arrano izateari ihes egiten diozu, Gizontto, eta horregatik zara putreen harrapakin. Arranoen beldur zara, saldo haunditan pilatua bizi zara eta bertan irentsia zara. Izan ere, zure zenbait oilok putre-arraultzeak berotu dituzte. Eta putreak arranoen kontrako zure Führer bihurtu dira, urrutiago eta leku hobeetara eraman nahi zintuzten arranoen aurkakoak. Putreek sarraski-haragi ustela jaten erakutsi zizuten eta gari pikor bakan batzuekin kontent gelditzen. Eta gainera hauxe oihukatzen erakutsi zizuten: "Heil, heil, Putre Haundi!" Orain gosez bizi zara eta hiltzen zara, saldo edo pilatan, eta oraindik zure txitoak berotzen dituzten arranoen beldur zara.

(Listen, little man!)
W. Reich

Itzulpena, P. Petrirena

LESAKAN, NAFARROA OINEZ

Orain hiru hilabete pasatu direnean, errealitate urrun bat bilakatzen da neretzat. Hainbertze jende, hainbertze ordu, hainbertze lan egin ondoren, zer geratzen zaigu?

Burutara etortzen zaidan lehenengo gogoeta, egun horretako jaleoa da.

"... Eguraldi ona egiten du, haizeak fuerte xamar jotzen du, pankarta batzuk lurretik dabiltza, kotxeak kargatu eta gure lana betetzera. Jendea bere lekutan prestatuta dago, ea nork azkenik! ilusioz beterik! gure euskara eta ikastolari nolabait aurre egingo dion irteera honi pistoletazoa emanez.

... E! zoazte! seguru diru asko dagoela eta bildu beharko duzue!

...Azkenik! Tori dirua! ez dugu kontatu! ez dugu kanbiorik!. Lasai, orain-txe ekarriko ditugu... Handik bi ordutara lortu genuen kanbioekin iristea ezin pasa herritik.

... E! zuek! ez dugu sakakortxorik! denak hautsi dira! mesedez, erosi! ez dago xolomorik? bai, baina kamioak ezin du pasa. Ez dago bokadillorik? ez dakit! Deitu koordinatzailea! Ni ez naiz zure batzordekoa, ez dakit deus ere!

...Oraindik deus ere bazkaldu gabe eta gainera denborarik ez. Bidetik ezin dugu pasa, oso gogor egiten ari da gure lana.

...Jarraitzen dugu deus ere bazkaldu gabe, halere oso kontent, jendea hasi da bere etxeetara itzultzen, mundu guztia oso pozik dago. Kristoren egarria dut! ostatura joan eta freskagarri bat eskatzen dut. Ez dago, gainera

Lesaka, Nafarroa Oinez.

orain txanpaina edan behar dugu! Eta nola ezetz erran, oso alai, pozez beterik daude, ni ler eginda baina ze egarria! egun osoa deus ere edan gabe, deus ere bazkaldu gabe, tira ba... txanpaina. Harriturik gelditu naiz botil erdia edan dut baso bat bestearen atzetik, hura zen egarria, hura!.

Dirua kontatzen ari dira, ia dena kontatuta dago diru pila bat, zigarro bat lasai erretzen dut eta ongi nago. Jendea pozik dago egin duen lanarengatik eta jaso duen erantzunarengatik, momentu honetan jendea ikusita oso kontent nago..."

Honelako ekitaldi batek zer suposatu duen Lesakan eta zer den ongi aztertzeko, historia pixka bat egin behar da.

Lesakan eginen zela erabaki ondoren, ikastola inguruan mugitzen zen jendea bildu ginen. Han, bertze urtetako experientziak ikusirik zortzi batzordetan banatuz, urte osoko egutegi bat, batzorde bakoitzaren lanak epetan markatuz egin genuen. Jendea, hasiera batean oso kementsu hasi zen lanean, gero, uda aldean, generaman martxa motelduz joan zen, nahiz eta denbora guzian jendeak animo haundiz lan egin.

Irailan zenbait ekitaldi kultural egin ziren herria girotzeko eta jendea lan zerredetan apunta zedin. Hasiera batetan herria ez zen konturatzen zer zen honelako ekitaldi bat, aunitzek ikusi arte ez ziren konturatu eta jendearen partizipazioa eskasa zen baina azkeneko egunetan behar haina lagunek izena eman zuten.

OINEZ egunean gertatutakoa, nahiko azaldu dute komunikabideak eta honetaz aparte deus gutti erran daiteke. Aipatu hori bai, gaur egun oraindik hainbertze jende egonda, hunkiturik gelditu ginela jendearen portaerarekin, bai etxeko herritarrekin, bai kanpotarrekin, eduki zuten pazientzia eta lasaitasunarekin.

Bertze aldetik, Lesaka hain zikina geldituta ere, biharamonean lagun aunitz elkartu ginen herria

garbitzeko eta gutatik aparte herritar aunitzek hartu zuen parte garbiketa honetan bere etxe ondoko inguruak garbitzen eta txukuntzen.

OINEZ egunak helburu nagusi batzuk izaten ditu, hau da, Nafarroan euskara eta ikastolen aldeko eguna ospatzea eta ikastolentzat dirua lortzea; aurtengoan Lesakako ikastolaren alde. Oraindik erabat bukatu gabe dagoen balantze ekonomikoan, 28 milioi inguru geldituko direla uste dugu.

Diru honekin zer egin planteatzen da hemen. Ba, momentu honetan bi edo hiru proiektu aztertzen ari dira herriko etxebizitzaren bat egokitu eta ikastetxe bat egiteko. Honek minimo batzuk bete behar ditu aitzaki administratiboak gainditzeko (ikasgelen m2, liburutegia, laborategia, e.a.) hau bete ezkero legalizazioa eska daiteke nahiz eta garbi eduki ez digutela emango, aurretik Nafar Administrazioari NAFARROA OINEZeko konbitea egin genionean, beraien helburua Lesakako ikastolaren desagerketa zela erran bait zigun. Gainera, azpiegitura egoki batekin kalitatezko irakaskuntza eskeini daiteke ikastolaren jarraipena zihurtatuz.

Arestian aipatu dugun bezala, azken bolara hontan Nafarroako Administrazioak eraso gogorra darama ikastolen kontra. Zenbait ikastola desagertu egin dira ikasturte honetan (Hiruherri eta eskolaurrea bakarrik zeukaten hainbat ikastola ttiki), eta garbi asko adierazi zuen bezala, bertze fase batetan Leitza eta Lesakako ikastolen diru iturriak moztuko ditu. Eraso hauen aintzinean, Nafarroako Ikastolen Federazioa egoera aztertzen ari da aurre egiteko.

Beraz, hemendik aurrera geratzen zaiguna ez da oso bide argia eta erraza, boborroka eta lan gogor baten aurrean gaude, Nafarroa Oinez egunarekin ez da dena bukatu.

M. K.

AUTOBIOGRAFIAREN POEMA

Mutiko beltzaran eta sudurmotza zen,
nahiko adabatutako galtza urdinez
jantzita, pozolo eta bihurri.
Goiz hartan, ia beti bezala,
esne bila agindu zion amak
eta, ia beti bezala, pitxerratik
tragu eder bat hartu zuen
etxerako bide malkartsuan.

Orain gizona da mutiko beltzaran hura,
eta semeari agintzen dio gauza bera;
hau bizikletaz doa baserrira,
eta pitxerra, esne beterik,
bidean erori eta isuritzen zaio
behin baino gehiagotan,
eta protestaka ari da mandatuagatik
behi esnea gustatzen ez zaionez gero,
kutxakoa baizik.

Gizonak bizitza osoa ihardun ohi du
bere iragana suntsitu, ezabatu nahian,
baina ez du oro lortu;
kontrolpean duen iraganaren irudiak
zenbait zirrikitutik ihes egiten du
noizbehinka, gaurko ganbara hau,
agitatu eta berria, jaio berria,
istante batean maltzurki
beste batean gozoki, erabat argituz.

Orainaldiaren atzeranzko indarraz
mintzatu zen tragiko moderno bat,
eta arrazoi osoa du erabat eroturik,
hil zen poetak, Zaratustraren diskurtsua
hasieratik bukaeraino asmatu ondoren.
Beraz, orain gizonak ez daki ziur
bere ganbara argitzen duen irudia
noiz sortu den, orain edo lehenaldian,
baina bai mutiko izaten darraiela.

Joakin Balentzia

Sunbilla, 1988ko Azaroaren 17a

Kaixo, Pedro:

Horrenbertze denbora zurekin topatu gabe. Joan den urtean, Iruñean elkar ikusi genuenean, erran zenidan noizbait telefonatuko zenidala. Hura, momentu hartan aunitz gustatu zitzaidan, baina gero etxean, nik pentsatu nuen... zertarako?... Biek arront ezberdinak gara, ala konprenitu genuen, eta bakoitzak nahi zuen bidea segitzea bereizi zuen.

Orain arte, pentsatzen nuen zutaz zerbait adiuko nuenean, ez zitzaidala batere inportako, baina ez da egia...

Ekologista talde batean sartu nintzen. Zergatik? Bueno, berdin da... Hango jendearekin ni nolabait aldatu nintzen, ez dakit, nere izaera, nere mentalidadea, eta ordurarte nik konprenitu ez nituen gauzak, poliki poliki, astiarekin, nere lagunen laguntzarekin eta neronen esperientziarekin ikusiz joan naiz. Nere begien eta errealitatearen artean zegoen lainoa desagertzen ari da.

Orain, gauzak hagitz garbiago ikusten ditut. Ah, ze deskuidoa... Oraindik ez dut ikasi nere burua nola kontrolatzen den. Begira, eskutitz honen hasierak hagitz llaburragoa izan behar zuen. Horregatik, zuzen zuzen, goazen gai nagusirat, bertzela hori irakurri gabe, eskutitz hau paperontzirat botako duzu.

Neretzat, bizitza honetan, oinarrizko puntua errespetua da. Nork errespatatu behar duen? Eta zer Errespetatu behar dugun? Erantzuna hagitz erraza da: denok dena errespetatu behar dugu. Eta "denok" horren barrenean nor gaude? Gu, gizakiok. Guk, bakarrik, egiten ahal ditugu nahi ditugun gauzak. Naturaren legeak, noizbehin, komeni zaigunean, jarraitzen ditugu. Animaliek, ordea, beti.

Eta erran dizut dena errespetatu behar dugula, eta zer edo nor da dena? Hitzak berak erraten du: dena. Bizidunak eta bizigabeak, bizi izan zirenak eta biziko direnak ere bai, gure sinesmenak eta bertzeenak, etab. Mundua, munduan dauden gauzak, ametsak, sentimenduak, hori errespatatu behar da.

Eta horretan dago zuen errua, ehiztariena, errespetua ez dator bat jabetasunarekin. Zuek ez zerete txorien eta hegazkien jabeak. Ezta basurdeenak ere, lapinenak, etab. Mendiak ere ez dira zuenak. Animaliak hiltzen, mendiak hondatzen, mendizaleei bakerik ez ematen. Zuen zaletasuna ez da gizonen aktibidaderik kaltegarriena, baina oreka ekologikoa hondatzen ari da, eta afera horretan zuek baduzue erantzunkizun haundia. Bertze garai batean ez dakit, baina orain eta hemen, zuen zaletasuna debekatu beharko litzateke.

Mundu honetan, DENA hobetzeko gaude, ez hondatzeko. Nik uste bide zuzena hartu dudala, eta zuk?... Pentsatu, mesedez.

Oraindik pixko bat maite zaituen
Maitek

"B.A."

Potrokilo

KOMUNAK
GIZONAK
EMAKUMEAK
emakumeen komuna, dut han!
ni neska eder bat naun...!
Hi..! Hi...! baina ...?
halaxe dun.
neska maizenez merede. Hiki bat eskatu behar dinat
Hilebeterokoa zetorkidan... eta tampaxerik ez zenkenat...
¿bat emanen al didan...?
Alde hemendik!
zerri, urdea!

Polizia leitu behar diat...!
Beno, Beno
Dena dela...
nola jakin dun arra mintzela?
eta... hori?
hara...! hogei segundu eragotzen naunela eta dagoeneko bragetari begira!
gizonak, emakumeak, nahikoa ez dun!... behar dizkiten neska urdeendako bertze komunak
Hau ere, aditu behar!...
Bertze bat nitaz denbora luzean ahantziko ezdena.

HONELAKOAK BAGENEKIZKIEN

Saia gaitezen berreskuratzen... erabiliz

....

LANTXURDA. *Gehienetan izotza ("escarcha") deitzen duguna zenbait lekutan LANTXURDA deitzen dute. Bertze aldetik, guk horma deitzen dugunari erran ohi diote izotza. Ikusten denez, lekuan lekuko erabilera.*

LIZUNa. *Hezetasuna edo bertze arrazoiak direla medio, zenbait gorputz organikoren azalean edo gainean sortzen den onddo urdinxka. ("Moho")*

DIOSALa. *Agurra, saludoa.*
"Nere aintzinetik pasatu da eta ez dit diosalik egin".

ABAROa(n egon). *Itzalpea, gerizpea. Artzaiek behinipehin erabiltzen dute.*
"Uda partean, eguzkiak berotzen duen orduetan, ardiak abaroan egoten dira, oihanean edo bordan".

ZAHIa. *Artoa, garia eta edozein ale xehetzean, irina eta zahia egiten dira. Zahia pikorren azala litzateke eta irina barrenekoa. Ogia eta opila egiteko, normalean, irinari zahia kendu edo bereizi egiten zaio. Horretan datza hain zuzen ogi arrunta eta "integral" delakoaren arteko ezberdintasuna, bigarren honetan irina eta zahia bertan bait daude. Bidenabar, erran dezagun, horrela osasungarriagoa omen dela.*
Bertze erranahiak ere baditu: ZERRA-ZAHIa ("serrin") eta ZAHIa, buruko grasa idortua ("caspa").

Lagunak, anima zaitezte hitz gehiago bidaltzera, bertzela gure iturria agortuko da eta!

BORTZIRIAK ETA MALAERREKAKO AEK



175 pezta.
9 libera